

hiruka

179. zenbakia
2022ko urtarrila

XABIER AMURIZA

**«Era inteligentean
bizitzea
ez da utopia»**



Telegram kanal berria

Uribe Kostako informazioa zure eskura!



hiruka

Aurkibidea

- 4 Puntua eta kontrapuntua
- 5 Erretratua
- 6 Urduliz, historia eta kondairak
- 10 Herriz herriko informazioa
- 16 Begia eta bisturia
- 17 Euskarari, atara kontuk!
- 18 Hirudika
- 24 Lehen/orain eta Urribitakora
- 25 Agenda
- 26 Berbetan: Xabier Amuriza
- 30 Uribe Kostako bertsolari gazteak, txapeldun
- 31 Hezkuntza gehigarria
- 38 Unai Ardeo, crossfit-eko txapelduna
- 39 UK Saskibaloia taldea
- 40 Musikhariak: Dena
- 41 Usategi
- 42 Argazkilariaren txokoa
- 44 Hirukira Olgetan: umeentzako denbora-pasak
- 46 Iritziak eta horoskopoa
- 47 Zozketak

6



Urduliz, historia eta kondairak

26



«Bizitzako gauzarik ederrenetarikoa izan da bertsolaritzak utzitakoa»

30



«Bakarka agian ez gara besteen parekoak, baina taldean moldatzen gara»

39



«Gure bi ardatzak: lan ona eta euskaraz aritzea»

hiruka

HIRUKA kooperatiba elkarte

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO

e-posta: hiruka@hiruka.eus

Posta-kutxa: 171

Telefonoa: 944 911 337

Publizitatea: Maria Gorostiola

Erredakzioa: Iker Rincon Moreno, Hodei Torres, Ander Zarraga

Diseinua: Artefakto

Administrazioa: Ziortza Merino

Zenbaki honetako kolaboratzaileak:

Joanes Atxa, Ina Gastaka, Asier Barruetaña, Iñigo Santxo

Filmazioa eta Inprimategia: Gertu Inprimategia

Lege-gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95

Ale-kopurua: 5.000

CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



Bizkaia

*foru aldundia
diputación foral*

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

Kultura eta Hizkuntza Politika
Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetza) diruz lagundua.

Urte barri on!

GOTZON BATIKON ETXEGARAI



Urte barri on danoi! Urtarrilaren lehenengo asteak hasi dira eta seguruenik promesak ere: zer egin behar dugun gure bizi-kalitatea hobetzeko, estresa kentzeko eta halakoak? Bai, ni ere horretan nabil. 2022. urtea, urte borobila dirudi, eta horretan konbentzitu dut neure burua. Kenduko ditut arazoak erosoago bizitzeko, niretzat denbora gehiago lortzeko, tramiteei behar besteko denbora emanez (ez gehiago), kirola eginez, esnaturik jarraituz, eta saiaturiko naiz nire esku ez dauden erabaki erraldoiei jaramonik ez egiten.

Artzainik gabeko artalde honen parte sentitzen bazara ere, ardi beltza izateko aukera kontuan hartu, eta konturatu zaitez bidezidorretatik joan zaitezkeela.

Behintzat, gaurkoz, baloratu dezagun dugun askatasuna, ez dakigulako bihar zein konturekin esnatuko garen. Goiz goizetik begiak ireki, eta jabetu, zein ondo gauden, osasuna, janari-plater bat, ura eta irribarrea ditugun bitartean. Zein pribilegiatuak garen kontziente izaten eta eskerrak emanez jaiotzeaz dagoen eguzki berriari. Lagunen kontuei, itsasaldeko ilunabarrari edota plazer txikien jokoez disfrutatu gaur eta orain; izan zaitez zure festarik ederrena eta koloreztatu zure mundu txiki eder hori.

Bide barriak

JANIRE ENZUNZA LANDA Filologoa eta irakaslea



Gero eta argiago ikusten dot jenteak ez dauala behar besteko denporarik hartzen pentsateko eta hausnartzeko, bakardadea topau eta urruntzeko; horrek eragiten dau gurpil zoro baten beti buelta bardinak emotea. Gizartean hainbat zeregin ontzat emonda dagoz, eta normalena ei da horreei jarraitzea.

Baina zergaitik ez gaintitu estereotipoak? Zergaitik ez hortik urrundu eta holango galderak egin geure buruari: zelan nago? Zer gura dot? Zerk eta nork eragiten deust on eta kalte? Zelan lortu dana dalakoa? Zelan konpondu arazoa? Irakurri dodan akabuko liburuan hainbat sentimendu topau dodaz, pozgarriak eta tristeak, eta idazleak ohartarazi deust naturak emondako aukerak gehiago eta gehiagotan gozatzeaz: erreka baten ur-etorriaren edo itsasoko olatuen zaratea, egunsenti edo arrastietako ikuspegiak, arbola arteko lasaitasuna eta txorien txioa, haizearen indarra aurpegian...

Egia esan, gizakiak lotura estua eduki dau natureagaz orain dala gitxira arte, eta ondo etorriko litzakigu harreman hori behin betiko ez etetea. Urte barrirako amets edo asmoa izan leiteke geure parajeko naturan barruratzeta, horretarako zentzumenak garatzea eta minutu edo, ausartu ezkerro, ordu batzuetan, sakelekoa ahaztea.

Puntua eta kontrapuntua **Eskualdeko gazteek irabazi dute Bizkaiko Bertsolari Txapelketa**

Belaunaldi berriak

*Herririk herri kantuz
jira eta bira
gaur berbaren jolasa
indartsu bizi da.
Belaunaldi zaharrak
noizbait joango dira,
berri batzuk zatozte
plazaren erdira
gidari izanik lehengo
izarren distira.*

**JOSU
LANDETA
EGURROLA**
Getxo

*Gazte asko baikaude
bertsotan Algortan.
Batzuetan kantari,
entzule askotan,
hitzekin jolasean
edota borrokan.
Aukera badaukagu
noizbehinka saiotan,
guk jarraituko dugu
pozarren bertsotan.*

**OIHAN
DIAZ
FRANCO**
Algorta



Jone Saitua Artista

«Erronka berriak bilatzen ditut artean»

GALERIA

jone saitua

Algortako Kasune kalean arte galeria eta estudioa ireki berri du Jone Saitua artista getxoztarrak. Mikropigmentazioa eta margolaritza ditu ogibide.

TESTUA: JULEN NAFARRATE • ARGAZKIA: HODEI TORRES ▶


Arte-espazio berri bat du Algortak iazko apiriletik. Jone Saitua artistak estudioa eta galeria ireki du Kasune kalean, bere sormenari ateak irekitzeko: «Lan egiteko eta kulturzaleekin elkartzeko espazio bat behar nuen; aurrez-aurrekoa gustatzen zait». Estudioa orain dela gutxi ireki duen arren, Saitua betidanik egon da artearen munduan murgilduta: margolaritza, eskulanak, horma-irudiak... «Barne-diseinua ikasi nuen, lekuak eta espazioak atseginak bihurtzea gustatzen zaidalako; gauzak eraldatzea, ederrago bihurtzea».

Eta nolakoa da Jone Saituaren lana? Zaila da guztiz definitzea. Bere berbetan: «Nire lana oso anitza da. Materialak, teknikak, tamainak eta koloreak aldatzen ditut uneo-

ro, probatzea gustatzen zaidalako. Erronka berriak bilatzen ditut artean». Estilo propioa sortzeko zailtasuna duela esan dezake baten batek; baina agian hori da hain justu beste estiloa: «Aldatzea gustatzen zait, jolastea». Edozelan ere, badira elementu bi bere lanetan errepikatzen direnak: emakumeak eta natura. «Bai, ez dakit zergatik baina eroso sentitzen naiz emakumeak eta naturaren elementuak irudikatzen, baina ez hori bakarrik...». Bai, gizonak, adibidez, irudikatu izan ditu... «Formatu handiko koadro bat egin nuen Jon Kortajarenaren aurpegiarekin. Bilboko Lurrina jatetxean dago, eta arrakasta handia dauka mahaikide artean. Esan dizut ba nire estiloa oso anitza dela!».

Saituak erabiltzen dituen materialak ere oso ezberdinak dira: «Material irregularrekin lan egitea gustuko dut, inoiz ez dakizulako zehazki zer gertatuko den». Batzuentzat arazoa izan daitekeena, abantaila da berarentzat, beraz. Azalean ere bilatzen du irregulartasun hori: «Aurpegi-mikropigmentazioa ere egiten dut: bekainak, begiaren marrak, ezpainak... Hortxe ere edertasuna bilatzea da nire helburua. Artea lantzeko beste modu bat da». ◀

Urduliz, historia eta kondairak





Txiri-Txiri proiektuaren baitan, beste dibulgazio-ibilbide bat egin zuten joan den abenduaren 19an Urdulizen. Oraingoan, udalerriko historia eta pertsonai ezagunen kondairak eta bitxikeriak azaldu zituen Koldo Somokueto adituak, Tantak elkarteak gonbidatuta. Denera, bi orduko ibilaldian, lau geldialdi egin zituzten, baita lau eraikin esanguratsu ezagutarazi ere, besteak beste.

TESTUAK: **IKER RINCON MORENO**


ARGAZKIAK: **HODEI TORRES • TANTAK ELKARTEAK UTZITAKOAK ►**

Tradizioz, landa-eremua izan da beti Urduliz, baserriz eta soloz inguratutako gunea, hain zuzen ere. Halere, azken urteotako urbanizazio-proiektuek udalerriaren egitura goitik behera aldatu dute; ospitalea, metroaren lurperatzea, etxebizitza-bloke berrien eraikuntzak... Hala eta guztiz ere, mendeetako historia batzen duen ondare paregabea gordeta du udalerriak oraindino auzoz auzo; XVI. mendetik gaur egunera artekoa. Eta horixe erakutsi gura izan du bertako Udalak antolatutako, eta Tantak elkarteak kudeatutako, Txiri-Txiri proiektuaren azken ibilbide dibulgatzaileak. Horretan, Koldo Somokueto historialari urduliztarrak gidatuta, inguruko baserri eta eraikin enblematikoenek gordetzen dituzten istorioen zirrikituak agerian utzi zituen egitasmoak, besteak beste.

TXIRI-TXIRI IBILBIDE DIBULGATZAILEAK. Iragan irailean eman zioten hasiera Txiri-Txiri proiektuaren egitasmo berriari, familiek eta norbanakoek udalerriko natura, kultura eta paisaia hobeto ezagutzeko aukera izan dezaten. Ana de Lara Tantak elkarteko kideak azpimarratu duenez, aurretik Urdulizko Udalak jorratu zuen proiektua, auzokideen osasuna eta heziketa fisikoa bultzatzeko asmoz. Udagoienetik aurrera, al-diz, Tantak elkartekoek kudeatzen dute hori, «eta kutsu ezberdina eman nahi izan diogu horri, inguruaren nondik norakoak dibulgatzeko, hain zuzen», De Lararen berbetan. Hala, ibilbide geologiko bat egin zuten lehenengoz, eta Aintzane Gofard eta Amaia Ordiales geologoek Urdulizen dauden formazio geologikoak eta arroka motak ezagutzera eman zituzten. Ondoren, urrian, bigarren ibilaldia egin zuten; horretan, bertaratutakoek inguruko zuhaiztiez gozatu ahal izan zuten, arbolen nondik norakoak eta ezaugarriak ezagutuz dibulgatzaileen azalpenakaz. Hirugarrena, eta azkena momentuz, abenduan



1 Osteiko baserria



Urdulizko baserririk zaharrena da. Baserriko arkupean dagoen arku konopial ultra-beheratuari esker, jakin daiteke 1520 inguruan eraiki zela, Mungian Landetxo-Goikoa baserri ezaguna eraiki eta hamar

urtera, gaur egun Olentzeroren etxea hartzen duena, hain zuzen; horixe da Bizkaiko baserririk zaharrena. Aipatzekoa da Urduliz Osteiko baserrian kontserbatzen den sarbide-arkua ez dela oso ohikoa landa-eremuan, eta horrek are baliotsuagoa egiten du.

XVI

Mende horretakoak dira Urdulizen topa daitezkeen hamaika baserri. Zaharrena da Urduliz Osteiko, 1520koa. Hala, Mungiako Landetxo-Goikoaren ondotik, Bizkaiko zaharrenetarikoa ere bada Urdulizkoa. Andra Mari eliza ere garai horretakoa da, baina gaur egun ikus dezakegun tenpluak gutxi du garai horretan eraikitakoagaz, hura bota eta horren gainean gaur egungoa eraiki baitzuten.



2 Andra Mari eliza

Gaur egungo eraikina 1770ean egindako berreraikuntzaren emaitza da. Aurreko tenplutik, XVI. mendean eraikia, erdi-puntuko arkuko sarbideak mantendu zituzten, baita behe-koruan mantentzen den harlanduzko harritzko horma bat ere. Kanpai-dorrea 1673an eraiki zuten; erretaula nagusia, berriz, barroko klasizista estilokoa, Foruko eskultore Pedro de Alloydiz egilearena da, eta 1666an jarri zuten tenpluan. Erretaula horretako erliebeetako batean Santa Anaren eta San Joakinen arteko besarkada irudikatuta dago Jerusalemgo Urrezko Atearen aurrean. Trentoko Kontzilioan ezabatu zuten gai hori ehun urte lehenago, Ebanjelioaren eliza, «Pseudo-Mateo» izenekoa, alde batera utzi baitzuten. Hala ere, Ama Birjinaren gurasoen arteko besarkadaren irudikapenak halako ospea zuen, non hura zizelkatzen jarraitu zuten urtez urte, Urdulizko erretaula nagusiaren kasuan gertatu zen bezala. Gainera, XVIII. mendeko bi erretaula rokoko daude, eta nabarmentzekoa da ere 1852an erosi zuten organoa, Zaragozako Roque e Hijos enpresak sortutakoa.

1

Saio bitan banatuta, 50 lagunek aukera izan zuten Urdulizko eraikin eta pertsonai esanguratsuenen historia ezagutzeko. Bertara joaterik izan ez zutenentzat, hona hemen ibilbidean kontatutakoaren lagin bat.

izan zen, Koldo Somokueto historialari urduliztarrak gidatutakoa. «Hiru ibilbideen harrera oso ona izan da; interes handia dago udalerriko natura eta historia ezagutzeko, eta espero dugu aurten egitasmoarekin jarraitu ahal izatea», Tantak elkartekoek zehaztu dutenaren arabera.

«**URDULIZ: HISTORIA ETA KONDAIRAK**». Titular horren pean, azkenengo ibilbide-dibulgatzailea egin zuten Urdulizen abenduaren 19an. Horretan, Bizkaiko bigarren baserri-rik zaharrena bisitatzeko aukera izan zuten herritarrek, 1520koa, baita inguruotan aski ezaguna izan zen *Antsoneko* gizon indartsua-

2

ren historia ezagutu ere, besteak beste. «Oso polita izan da jendeari udalerrria ezagutaraztea historiaren eta artearen ikuspegitik. Nabarmentzekoa izan da, gainera, normalean sarbiderik ez dugun lekuetan egoteko aukera izan genuela, hala nola elizako kanpandorre-rra igo edo baserrietako atarietara sartu. Eskertzekoa izan da horien jabeen prestutasuna horretarako», azaldu du Somokuetok. «Plus hori eman nahi izan genion ibilbideari».

Saio bitan banatuta, 50 lagunek parte hartzeko aukera izan zuten Urdulizko historialariaren azalpenak entzuteko. Ordu biko ibilaldiak izan ziren, eta lau leku bisitatu zituzten. «Denborak mugatuta, bata bestearengatik

Elizako arkupetan, azalpenak entzuten. XIX. mendeko organoa ikusi zuten.

Osteikoko arkupeak zeresana du.

Erdigunean dagoen Mentxakatarren jau





Santa Marina, Zurbaranen obra adierazgarria

**Jaietan ermitara
eramaten duten
eskulturagaz antzik
ez du jauregikoak;
Zurbaranen imajinazioz,
garaiko arropaz
jantzitakoa da hau.**



4-5 Antsoneko baserria

Urdulizko beste baserri zahar bat da, XVI. mendean eraikia. Bertan jaio zen 1812an Jon Batiste Artaza Iraola, *Antsoneko* bezala ezagunagoa, bere indar ikaragarriagatik ospe handia lortu zuena. Jose Arriagak horren hainbat datu eta pasadizo bildu zituen, eta horri esker oso ondo ezagutzen dugu pertsonaia bitxi horren bizitza. Gihar handiak zituen, eta bere altuera zela eta, baserriko ateetako bat egokitu behar izan zuten, arazorik gabe sartu ahal izateko. Asko izan ziren bere bizitzan zehar egin zituen indar-erakustaldiak: barbarako, behin, ihesean zegoen zezen bat murriztu zuen; edo beste batean, lurra lantzen ari zela, bi gipuzkoarrek *Antsoneko* ospetsuaren baserriaz galdetu zioten, eta berak goldea esku batez altxatuz lekua seinalatu zien. Kanpotarrek, harrituta, jakina, konturatu ziren gizon ospetsua zeukatela aurrean. Askotan egin zituen indarraldien ondorioz, hernia bat agertu zitzaion, eta 1856an hil zen, 44 urte zituela. Baserri horretan jaio zen, halaber, Benito Otazua Asua idazle, euskaltzale eta bizkaieraren defendatzailea. Hain zuzen ere, Andersenren ipuinak eta Antoine de Saint-Exupéryren *Printze txikia* euskaratu zituen; 2012an hil zen.

3 Mentxakaena jauregia



XVIII. mendeko eraikina da, fatxada nagusian hura eraiki zuen familiaren armarria duena: Mentxakatarrak, jatorriz Laukizen zegoen dorretxe batetik etorritakoak, Urdulizko mugatik oso

gertu. XVIII. mendean, familia sozialki nagusitu eta ekonomikoki aurrera egin zuten, familiaren ondarea handituz. Urdulizen ere jauregi hau eraiki zuten, oso elementu bitxia duena: Santa Marinaren eskultura bat, Francisco de Zurbaranen margolan batean inspiratua dagoena. 1640-1650 urte bitartean margotu zuen artistak hori, eta Malagako Thyssen Museoa ikus daiteke.



Ibilbiderako, lau leku nabarmendu ditu Somokuetok, baina askoz gehiago izan zitezkeela nabarmendu du, hala nola Santa Marinako haitzak eta Dobaran inguruko baserriak: «XVI. mendekoak dira asko».



gertu zeuden gunek bisitatu genituen, baina udalerrian interes handiko beste hainbat gunere ere bisita daitezke, hala nola Santa Marina baseliza, Torrebarri edota Dobaran auzoa. Azken horretan, XVI. mendeko hainbat baserri ikus daitezke, oso ondo kontserbatuta daudenak», dio historialariak, «agian, beste egunen batean aukera izango dugu horietara bisitak egiteko». ◀

Antsoneko eskultura

**Antsonekoa plazan,
osasun-etxearen
ondoan, Urdulizko
indardun ezagunaren
eskultura topa
daiteke, goldea
eskutan, bere etxea,
Antsoneko baserria,
seinalatzen.**



regira sartzeko aukera izan zuten.

Antsoneko-ren eskulturaren ondoan.

Koldo Somokuetok azalpenak ematen.

Antsonekoan amaitu zuten bidea.



Getxo Kultur Etxea

Muxikebarrin aritzeko deialdia zabaldu dute sortzaileentzat

Getxoko Kultur Etxeak deialdi berria zabaldu du Muxikebarriko kultur programazioan kultur elkartearen parte-hartzea sustatzeko eta lan eta proiektu artistikoen emanaldiak bultzatzeko. Ekimena, pandemiak kaltetutako hainbat sektore biziberritzeko Getxo Ekinez planaren barruan dagoena, askotariko proiektuei irekita dago, hala nola musika, zinema, antzerkia, umorea, haurrentzako ikuskizunak, errezitaldiak, bertsoak edo beste edozein diziplina artistiko, eta horretara proiektuak aurkezteko epea otsailaren 8ra arte egongo da zabalik.

Deialdian parte hartu ahal izango dute udalerrian egoitza soziala duten irabazi asmorik gabeko kultur elkarteak. Gura beste proposamen aurkeztu ahal izango dituzte, edozein hizkuntzatan eta gehienez bi orduko iraupenagaz. Proiektu horiek getxoztarren partaidetza izan behar dute, baita proposamenaren zuzendaritza eszenikoaren jatorrizko egiletza ere.

Guztira, 60.000 euro bideratuko dituzte gehienez deialdira, eta 5.000 euroko gehieneko gastua ezarriko dute proposamen bakoitzeko. Getxoko Kultur Etxeko teknikariak arduratuko dira proposamenak ebaluatzeaz, eta horien artean gehienez 20 hautatuko dituzte, azaldu dutenez. ◀

Getxo Abian kultur elkartearen

Pentsionisten lau urteko borroka ikusgai dago egunotan Algortan

Ecuador Etxea eta Baskale elkartearen ekimenez, udalerriko pentsionisten lau urteotako borrokaren berri emateko argazki-erakusketa ikusgai dago egunotan Algortako Abian kultur elkartearen. Azaldu dutenez, Getxoko Pentsionisten Elkartea herri-mugimendu eta «apolitiko» gisa jaio zen Espainiako Estatuko Gobernuak 2018an iragarritako pentsioen % 0,25eko igoera «iraingarriari» aurre egiteko asmoz. Hala, 2019an, elkarte gisa osatzea erabaki zuten, legez, «udal-lokalak erabiltzeko oztipoak kentzeko eta diru-laguntza utopikoak lortzeko, besteak beste, gure arazoak azaleratzeko ekitaldiak eta hitzaldiak antolatzen baititugu», azaldu dute pentsiodunek, besteak beste. ◀

Getxo Udal-aurrekontuak

Udalbatzak 118 milioi euroko aurrekontuak onartu ditu 2022rako

EAJ eta PSE-EE udal-taldearen aldeko botoakaz jaso du oniritzia. Oposizioiko talde guztiek kontra bozkatu dute, proposatutako zuzenketarik onartu ez delako.



Besteak beste, HAPO berria osatzea izango da mugarrietako bat aurrekontuetan.

Abenduaren 22an egindako ezohiko osoko bilkuran onartu zuen Getxoko Udalbatzak udal-aurrekontu orokorraren proiektua, 118 milioi eurokoa, gobernu-taldeko (EAJ eta PSE-EE) aldeko botoakaz; oposizioiko alderdi guztiek, PPK, EH Bilduk eta Elkarrekin Podemosek, horren kontra egin zuten. Izan ere, talde horiek nabarmendu zuten, udal-gobernuak oposizioak aurkeztu zituen zuzenketa guztien kontra bozkatu zuen. Zehazki baztertu egin ziren bai PPK eta Elkarrekin Podemosek aurkeztutako bi osoko zuzenketak, bai izapidetzeko onartu ziren 91 zuzenketa partzialak (PP taldearen 8, EH Bilduren 27 eta Elkarrekin Podemosen 56). Alabaina, negoziatzeko, akordioetara heltzeko eta, etorkizunera begira, gobernuaren eta EH Bilduren eta Elkarrekin Podemosen arteko zubiak eraikitzeko borondatea dagoela nabaritu zen eztabaidan, udal-iturriek zabaldu dutenez.

Nolanahi ere, oposizioak azpimarratu zuen aurrekontua ez dela anbi-zio handikoa, kontserbatzailea dela, eta gabezia ugari dituela, hala nola etxebizitza eta gazterien alorrean eta ekonomia-sustapeneko alorrean; halaber, adierazi zuen ez diela erantzuten pandemiak gehien kaltetutako sektoreen beharrezan, eta herritarren poltsikoa zigortzen duela zergak handituz. Oro har, aurrekontua «eztabaida eragozten duen eta oposizioari gauza handirik egiten uzten ez dion» osoko bilkurara heldu dela uste du oposizioak, ez baitira proposatutako zuzenketak onartu.

Bestalde, udal-gobernuak gogoratu zuen susperraldi ekonomikoari esker 2022ko zerga-bilketaren aurreikuspenak positiboak eta ia-zokoak baino hobeak izango direla, eta, ondorioz, arloei aurrekontu handiagoa emango zaiela eta inbertsioak egingo direla. Halaber, agintariei azpimarratu zuten aurrekontuak pertsonak jarri dituela erdigunean. ◀

Leioa Udal-aurrekontuak

Leioak bere historiako aurrekonturik handiena onartu du

Leioako Udalak 2022rako 40,6 milioi euroko aurrekontua onartu xuen abenduan. Alkatea pozik azaldu zen horien emaitzagaz eta beste alderdiakaz lortutako adostasunagaz.



Iban Rodriguez Leioako alkatea Udaleko osoko bilkuran. LEIOAKO UDALA

Guztira, Leioako Udalak 40.689.878,59 euroko udal-aurrekontua onartu du 2022rako; gainera, Soinu Atadia eta Euskararen Erakundea elkarte autonomoek 2.240.285,75 euro eta 982.194,21 euro jasoko dituzte, hurrenez hurren. Abenduaren 23an egindako osoko bilkuran, EAJk eta PSE-EEk osatutako gobernu-taldearen aldeko botoakaz onartu zen aurrekontu-proiektua; Elkarrekin Podemos eta PP abstenitu egin ziren, eta EH Bilduk aurka bozkatu zuen.

Udal-iturriek azpimarratu zuten, Leioako historiako aurrekonturik handiena izango da eta, horri esker, pertsonalekoa bezalako gastuak handitu ahalko dituzte, udal-langileen soldatak igoz. Gainera, Gizarte Zerbitzuetako eta Enplegu eta Prestakuntzarako partidak ere indartuko dituzte, «Leioako herritarrak erdigunean jarri», Iban Rodriguez Etxebarria Leioako al-

kateak zehaztu zuenez. Gainera, alkatea kontent azaldu zen beste alderdiakaz lortutako adostasunagatik, eta eskerrak eman zizkien «aurrez erakutsitako jarreragatik».

EH BILDU AURKA. Asier Izquierdo Aguilera EH Bilduko zinegotziak «positibotzat» jo zituen lortutako akordio politikoak, baina deitoratu zuen aurreko aldietan eskuratutako adostasun batzuk bete ez izana. Koalizio abertzalearen ezezeko botoa argudiatzeko gobernu-taldeagaz lehentasunak partekatzen ez dituztela azaldu zuen. Gainera, gobernu-taldeari planteatutako hiru konpromiso ere nabarmendu zituen, beraien ustez proiektuak partekatzeko borondatea agerian utziko zituztenak, hain zuzen ere: Leioa eta Areeta arteko metroa lurperatzea, Ondiz historikoaren egungo egiturari eusteko indarrak batzea eta kultur taldeentzako ordenantza berri bat. ◀

Leioa Garraioa

Aldundiak dio Avanzada lurperatzeak eskualdea «kolapsatuko» lukeela

Imanok Pradales Bizkaiko Azpiegitura eta Lurralde Garapeneko diputatuak Avanzada estaltzeko Aldundiaren proiektua defendatu du beste behin. Adierazi du BI-637 errepideak Leioako bizilagunei eragiten dizkien kutsadura- eta zarata-arazoak amaitzeko erantzun «errealistena eta bideragarriena» dela; zehaztu duenez, gainontzeko beste aukerak baztertu ondoren planteatutako egitasmoa da, lurperatzeko lanek eskualde guztia «kolapsatuko» lukeelako.

Azaroan aurkeztutako proiektuak 62,5 milioi euroko aurrekontua du eta, horren bitartez, Aldundiak lubakiak estali, tunelak egokitu eta sarbideak isolatu gura ditu. Gainera, Avanzadako trafikoaren zarata-arazoa pairatzen duten etxebizitzetako leihoak aldatzea % 100ean finantzatuko du Aldundiak.

Errepidea guztiz estaltzeko eskatzen duen plataformako kideak ez daude egitasmoagaz ados, diotenez, hainbat biztanle, Txomin Aresti ikastetxea, kontserbatorioa eta eskalategia horretatik kanpo geratuko direlako. Konponbide integral bat aldarrikatu dute, eta, horregatik, abenduan hainbat arrazoibide aurkeztu zizkieten egitasmoari. ◀

Leioa Familian programa

Familiatan euskararen erabilera sustatzeko saioak egingo dituzte

Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuak Familian programaren saio berriak aurkeztu ditu, udalerriko ume eta familiengan euskararen erabilera sustatzeko egitasmoa, hain zuzen ere. Saioak euskara hutsean izango dira, helburua euskararen erabilera sustatzea baita, bai familian, bai familia artean ere. Tailerrak 4 urte-tik gorako ume leioaztarrei zuzenduta daude, betiere pertsona heldu bategaz lagunduta. Bertaratzeko ezinbestekoa izango da astebe-te lehenago Euskara Zerbitzuan izena ematea. Hilero bi saio eskainiko dituzte, urtarrilaren 15ean eta 21ean, otsailaren 6an eta 11n, martxoaren 6an eta 11n, apirilaren 1ean eta 2an eta maiatzaren 7an eta 13an, 70-90 minutukoak bakoitza eta puntu hauetan: Pinuetako ludoteka eta Kultur Leioa. ◀

Erandio Langileen protestak**Opor-egunak kendu dizkietela salatu dute Udaleko beharginek**

Eguaztenero, Erandioko udaletxearen aurrean protesta egiten hasi dira Udaleko arlo ezberdinetako zenbait langile. Salatu dute Udalak lan-egutegia aldatu diela eta lehen zituzten hainbat opor-egun kendu dizkietela. Azaldu duteenez, jardunaldietako lanorduak laburtu dizkiete, urteko ordu-kopurua betetzeko, baina aurretik adostutako egutegiko opor-egunak kenduz. Horren bitartez, Udalak oporraldiak betetzeko ordezkio langileen kontratazioa aurreztu gura duela deitoratu dute: «Alkateak, dekretu bidez eta adostasunik gabe, 2022ko egutegia aldatu zuen, lan-baldintzak okertuz, atsedeen-egunak kenduz eta kontziliaziarako aukerak murriztuz». Langileek LAB, ELA eta UGT sindikatuen babes jaso dute, besteak beste.

Neurri horren aurka ere azaldu dira etxer etxeko arreta-zerbitzuko langileak. Behargin horiei 2021eko uztailean aldatu zieten lan-egutegia, Gabonetako eta Aste Santuko egun libreak kenduz. Garai horretan behargin horiek adierazi zutenenez, «lan-baldintzen funtsezko aldaketa horregaz Udalak diru apur bat aurreztuko du, egun horietan ordezkapenak egiten dituzten lan-poltsako langileen gastua, hain zuzen ere».

Langileek epaitegietara eraman zuten auzia, eta urtarilaren 12an hasi zen horren inguruko epaiketa. ◀

Erandio Euskara Zerbitzua**Ipuin, narrazio eta bertsopaper lehiaketa abiatu dute Erandion**

Erandioko Udaleko Euskara Zerbitzuak urtero antolatzen duen lehiaketak berrikuntza bat izango du aurten: narrazio eta ipuinetan derrigorrezkoa izango baita hilero Erandioko Udalaren kultur agendan azaltzen diren inguruko berbetako hiru erabiltzea, gutxienez.

Lehiaketan parte hartzeko, ipuinak, narratioak edo bertsopaperak Erandioko Euskara Zerbitzuko webguneko loturara bidali behar dira. Lehiaketaren irabazleek 80 eta 100 euro bitarteko sariak jaso ditzakete, mailaren arabera; bestalde, parte hartzeko epea zabalik egongo da 2022ko apirilaren 8ra arte. ◀

Erandio Indarkeria matxista kudeatzeko plana**Indarkeria matxistaren biktimenezko arreta hobetu gura dute**

Indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeei ematen zaien arreta eta baliabideen kudeaketa hobetzeko koordinazioa sistema berria aktibatu du Udalak.

Erandion, indarkeria matxistaren biktimak diren emakumei arreta zuzena ematen dieten profesionalen prestakuntza berezia ematen ari zaie Udaletik. Jakinarazi dutenez, daborduko emakumeen aurkako indarkeria kasuetarako koordinazio-protokoloa martxan jarri dute eta, horretaz gain, Udalaren baliabideak kudeatu eta koordinatzeko sistema bat abiaraziko dute laster.

Zehaztu dutenez, martxan jartzen ari diren egitasmo horien helburua da indarkeria matxista mota guztiei heltzea eta, era berean, Udaleko baliabide eta agente ezberdinen elkarlana koordinatzea. Jorge Gonzalez Berdintasun zinegotziak zehaztu duenez, «indarkeria horren jatorrian dagoen egiturazko desberdintasuna ezabatzea lehentasuna eta premia

handieneko bat da Udal honentzako». Tresna horien bitartez, artatutako kasuen inguruko informazio zehatza bilduko dute eta, horren bitartez, kasuen azterketa eta jarraipen profesionalerako mahai bat sortu gura dutela azaldu dute; ikuspegi feministatik gizarte-laneko, arreta psikologikoko, enpleguko, juridikoko eta polizia-leko diziplinak barnean hartuko dituen.

Ildo horretan, Errotik Kooperatiba arduratu da Udalak indarkeria matxistaren arloan esku-hartzea eraginkortasunez gauzatzeko beharrezkotzat jotzen duen lana bideratu eta antolatzeke protokolo horren diseinua eta kudeaketa egiteaz. Horretarako, emakumeen aurkako indarkeria-kasuak detektatzen eta artatzen esku hartu ohi duten Udaleko arloetako profesionalen ekarpenak eta esperientzia jaso dituztela zehaztu dute. ◀

**Tuugaalik arrantzak-ontzia itsasoratu dute**

Erandioko Murueta ontzioak Groenlandian ganbak arrantzatu eta prozesatuko dituen itsasontzia uretaratu zuen urte hasieran. 82,30 metroko luzera eta puntako teknologiaz hornituta, «urrats sendoa» suposatzen du ontzioarentzat.

Sopela Udal-aurrekontua

Sopelak inoizko aurrekonturik handiena onartu du 2022rako

Iturrieta parkeko frontoia estaltzea, Udaltzaingoa komisaria berria eta erdigunea oinezkoentzat egitea dira nabarmendu dituzten helburuetako batzuk.

Sopelako Udalak 16,4 milioi euroko aurrekontua onartu du 2022rako, Josu Landaluze alkatearen graziazko botoari esker. Gobernu-taldea osatzen duten EAJren (6) eta PSE-EEren (1) babesak izan zuen aurrekontu-proiektuak; aldiz, oposizioko taldeek, EH Bilduk (6), Elkarrekin Podemosek (1) eta DB-Tuk (1) aurka bozkatu zuten, eta Podemosek kaleratutako zinegotzi atxiki gabea abstenitu egin zen. Koalizio abertzaleko kideek «EAJren gobernantza estiloarekiko mesfidantza eta desadostasuna» azaldu eta azken bi urteotako agintaldiaren «oso balorazio negatiboa» egin dute ezezko botoa argudiatzeko.

Udalak aurrekontuotarako ezarritako helburu estrategikoen artean, hauek dira nabarmendu dituztenak: euskaltegiaren eta musika eskolaren birgaitze energetikoa (240.000 euro); futbol-zelaian belar artifiziala jartzea (550.000 euro); Urkoren instalazioak ixtea



Sopelako erdigunea oinezkoentzako atsegina egin gura du Udalak. SOPELAKO UDALA

%13,54

altuagoa izango da aurtengo aurrekontua, iazkoagaz alderatuta.

700.000

euro bideratuko dituzte Udaltzaingoa eta polizia-etxe berria eraikitzeko, dagoenak segurtasun-baldintzak betetzen ez dituelako.

(200.000 euro); Iturrieta parkeko pilotalekua, rokodromoa eta umeen jolasak estaltzea (1,2 milioi euro) eta Zabalbideko bidegorriaren proiektuaren idazketa (15.000 euro). Gainera, Udalak Sopelako erdigunea oinezkoentzako eta bizikletentzako atsegina egin gura du eta, horretarako, alde batetik, Akilino Arriola kalea eta inguruko beste batzuk erdi-oinezkoentzako bihurtuko ditu aurren; zeregin horretarako, 1,2 milioi euro bideratuko dituzte. Beste aldetik, erdigunea zeharkatuko duen bidegorria ere eraikiko dute Loroñoko beheko aldetik Kurtzio kultur etxera arte, udaletxe paretik, eskualdeko bidegorrien sarean txertatuz. ◀

Sopela Garestitzea

Sopelako kiroldegietako bazkideen tarifa % 20 igoko dute aurren

Sopelako kirol-instalazioak hurrengo 20 urteetan kudeatuko dituen enpresagaz adostutako hitzarmenean adierazten zenez, udalerriko kiroldegietako abonuen tarifa % 20 igoko da aurren. Igoera hori, batzuetan, hilean 3,2 eurokoa izango da, erabiltzaileek duten abonua eta egiten dituzten jardueren arabera. Udal-iturriek azaldu dutenez, igoera hori arintzeko, aurren, 45.000 euro bideratu dituzte udalerrian kirola sustatzeko laguntzetara.

Langileen egoera Sopelako Udaleko oposizioko alderdiek kirol-instalazioetako langileen egoera ere salatu dute, azken urteotan nabarmen okertu dela adieraziz.

Oposizioko alderdiek erabakia gogor kritikatu dute, eta deitoratu dute EAJk eta PSEk adostasunik gabe hartu dutela tarifak igotzeko erabakia. Gogoratu dute 15 gehi 5 urteko lizitazioa modu polemikoan onartu zela, Podemoseko zinegotzi ohiaren botoa emateko arazo-teknikoei esker. Gainera, deitoratu dute EAJk eta PSE-EEK tarifak igoko dituztela enpresa emakidunagaz erabakitako kirol-instalazioak eraikitzeko, gainontzeko alderdien adostasunik gabe. ◀

Berango Udal-aurrekontuak

9,3 milioi euroko aurrekontuak onartu dituzte 2022rako

Aurreikusitako proiektuen artean daude Karabiganeko arrapala mekanikoa, udalerriko argiteria publikoa hobetzea eta kanposantua zaharberritzea, besteak beste.



Udalak hilerria zaharberrituko du datorren urtean, beste jarduketa askoren artean.

Udalbatzak 2022rako 9,3 milioi euroko aurrekontua onartu zuen abenduaren 21ean; horretarako, EAJk bere gehiengo osoa baliatu zuen, zazpi zinegotzi baititu. Oposizioko alderdiei dagokienez, PPko zinegotziak aurrekontuen alde bozkatu zuen, Elkarrekin Podemoseko zinegotzia abstenitu egin zen, eta EH Bilduko hiru zinegotziek eta PSE-EEkoak aurka bozkatu zuten, bestelako azalpenik eman gabe. Anabel Landa Berangoko alkateak adierazi duenez, «deigarria da inolako zuzenketarik egin gabe aurka bozkatzea».

Aurreko ekitaldian baino aurrekontu txikiagoa izan arren, iazko diru-partidak -11 milioi euro inguru- urtea hasita zegoela onartu zituztela gogoratu du alkateak, beraz, globalean, gerakina ere sartu zuten. Gainera, aurrekontuaren kreditua aldatzeko espedientearen emariari esker, milioi bat euro aurreztu ahalko dutela azaldu du agintariak, eta 1,6 milioi

euro inguru ere lortu dituzte lursail bat besterentzeagatik; beraz, inbertsioetara bideratzeko 2,6 milioi euroko soberakina izango du Udalak aurrekontuaren. Soberakin horregaz, alde batetik, Karabiganeko arrapala mekanikoa egin ahal izango dute; bestalde, udaletxearen ondoko Elexalde eraikina desjabetuko dute 500.000 eurogatik, «aurreikusita zegoen hori egitea, eta Udalaren erabilerarako bideratuko dugu, bertan, Udaltzaingoaren bulegoak jartzeko asmoa baitugu»; gainera, kanposantua ere zaharberrituko dute: horma-hobiak, kolunbarioa eta memoriaren zuhaitza jarriko dute, besteak beste; eta, azkenik, futbol-zelaiko belardi artifiziala berritzeko 250.000 euro bideratuko dituzte.

Gainontzeko aurrekontuari dagokionez, zatirik handiena gastu arruntera bideratuko dute; izan ere, ia 5 milioi euro beharko dituzte zerbitzuak ordaintzeko, hala nola argiteria publikoa edo kale-garbiketarako. ◀

Berango Parte-hartzea

Berangoztarrek euren proiektuak aukeratu dituzte

Herriarrek honako proiektuak aukeratu dituzte aurrekontuetan sartzeko: Moreagan argiteria hobetzea, skate-parkearen hedatzea, Kurzen ping-pong mahaiak jartzea eta herrian bizikletak aparkatzeko eta txakurren gorotzak batzeko zakarrontziak jartzea. Gainera, hainbatetan eskatu dituzten baratze ekologikoak ere jarriko ditu Udalak Aretas inguruan.

Aurrekontu parte-hartzaileei esker, Berangoko Udalak herritarrek proposatutako hainbat jarduerara sartu ahal izan ditu 2022ko aurrekontuetan. Anabel Landa Berangoko alkateak HIRUKAri azaldu dionenez, prozesu horren bitartez hainbat ekarpen jaso eta herritarrek aukeratzeko bost proiektu sortu dituzte: «Ekarpen batzuk herritarrek aukeratzeko proiektu moduan aurkeztu ditugu, baina beste hainbat aurrekontu orokorretan ere sartu ditugu. Gainera, prozesu horren bitartez, guretzat oso baliagarria den informazioa ematen digute herritarrek».

Aurrekontu parte-hartzaileen planteamendua, gainera, ezberdina izan dela dio alkateak: «Lehen, aukeratzeko ekarpenen arabera bideratzen genuen dirua, aldez, aurrekontuaren, egitasmo horretarako 110.000 euro gorde ditugu». ◀

Plentzia Ekonomia

Ekonomia suspertzeko hiru laguntza-lerro abiatu ditu Udalak

COVID-19ak kolpatuta, azken hilabeteetan pairatutako hiribilduko enpresei, negozioei eta ostalaritzari laguntzeko 72.000 euro bideratuko ditu Plentziako Udalak, hiru laguntza-lerrotan banatuta: Plentzia Garatzen, Plentzia Berpiztu eta Plentzia Eraberritu. Diru-laguntza horietarako interesa dutenek Udalaren HAZn erregistratu edo modu telematikoan aurkeztu beharko dute eskabidea urtarilaren 27a baino lehen.

Informazio gehiago gura izanez gero, Ekonomiaren Garapen, Enplegu eta Landa Inguruneko Departamentura jo daiteke garapena@plentzia.eus helbidera idatziz edo 946 774 199 telefonora deituta. ◀

Urduliz Udal-aurrekontuak

Udalak % 16 handitu du bere aurrekontua 2022rako

EAJren gehiengoaz baliatuta onartu du udal-gobernuak urte honetarako aurrekontua, 6,2 milioi eurokoa. Helburua susperraldi ekonomikoa bultzatzea izango da.

EAJ taldearen aldeko botoakaz, Urdulizko Udalak aurtengo aurrekontua onartu du, 6,2 milioi eurokoa. Kontuak abenduaren 21ean egindako ezohiko osoko bilkuran aurkeztu zituzten, hasierako onarpena emateko, eta % 16,68ko igoera aurreikusten dute 2021koakaz alderatuta. Horren helburua da «izaera soziala indartzea eta susperraldi ekonomikoa bultzatzea», Javier Bilbao alkatearen esanetan.

Aurrekontuak udal-zerbitzuak estaltzeko partida nagusiak handitzea aurreikusten du, eta horretara 2021ean baino 251.684 euro gehiago bideratuko da (% 8,58ko igoera). Partida horien artean, nabarmentzekoak dira Bulego Teknikoa egokitzeko esleipenak, garbiketa-zerbitzuak –eskolarako eta haurreskolarako COVID-19aren aurkako protokoloko partida espezifikoak barne– eta erantzukizun zibileko aseguruaren estaldurak hobetzea. Modu berean, hiri-hondakinak biltzeko, ener-



Aurten, jaietarako partida jaso dute, bi urtez baztertuta egon ondoren.

Inbertsioen atalean, Udalak 440.000 euroko partida aurreikusi du, mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetzeko proiektuak martxan jartzeko.

gia elektrikoaren eta gasaren hornidurarako eta transformazio-zentroak konpontzeko erabiliko den diru kopurua ere handitu egin da.

Gizarte eta kultur arloan, aurreko bi urteetako etenduren ondoren, jaietarako partida jasotzen da berriro ere, eta Gaztelekurako begirale berri bat kontratatzea ere aurreikusten da, baita kultur jardueren eskaintza handitzea ere. Gainera, udalekuetarako eta euskara sustatzeko 100.000 euro banatuko dira. ◀

Uribe Kosta Koronabirusaren datuak

Eskalada etengabe baten ondoren, positiboak gutxitzen hasi dira

Egunez egun atzemandako positiboak kopuruak gora eta gora eginez amaitu genuen 2021a; aldiz, orain, azkenengo datuen arabera, badirudi hilaren 4an goia jo zuela igoerak, 1.310 kasuak. Hortik aurrera, apurka-apurka, positiboak kopurua behera egiten hasi da eskualdean. Hala ere, Osakidetza horrenbeste test egiteari utzi dio, eta horrexegatik atzemandako kasuen beherakada: urtarilaren 10ean ia 30.000 egin zituen, eta hilaren 16an, aldiz, 9.820. ◀



Begia eta bisturia Ina Gaztaka Eguskiza

Ura, eguzkia eta marrazoa, hausnarketaren bidean



Lehen, jakituriaren argiak itzaltzen ziren agintariek soilik erabaki ahal izateko; orain, ordea, fokuaren argi horiek dira informazioa erabilezina bihurtzeko urratutako bidea. Izan ere, argia ikusteko baliagarria da, baina itsugarria izan daiteke baita ere.

Gure garaiak ezagutu du balizko informazio erabilgarria zapaltzeko estrategia berritzailea: lehen, jakituriaren argiak itzaltzen ziren eta, horrela, soilik irakur zezaketen agintariek erabakitzen zuten; orain, ordea, fokuaren argi horiek dira informazioa erabilezina bihurtzeko urratutako bidea. Argiak balio du edozer gauza ikusteko, jakina, baina gehiegizkoa izanez gero itsugarria da, eguzkia zuzenean begiratzea bezala. Bada, mundua aurrera doa eta, horrekin batera, gizarte hierarkizatu honen goiko solairuetan dauden burutazioak gainontzeko gehiena kontrolpean edukitzeko bidezidorrak ere. Lehen, itzalen iluntasun gorena zena, egun, argiaren izpi izugarriak dira.

Spielberg zuzendariak berak ere landu izan zuen ezagutza-mugatua lantzeko teknika hori. Haren kasuan, helburu artistiko-narratiboak ziren xede nagusi. *Jaws* (1975) filmean, estatubatuarrak fokalizazio joko bat aurkezten du non ez dakigun, sekula ez, marrazo erasotzailearen ez kokapena, ez asmoa, ezta horren identitatea ere. Horretarako, eguzkiaren izpiak baliatzen ditu: animaliaaren ikuspuntu-subjektibotik filmatutako hainbat sekuentziantan, astroaren errainu amaiezinak dira egia-aren osotasuna mugatzen, jaten, mutilatzen,



Jaws (1975)

Film honetan, Spielberg zuzendariak fokalizazio joko bat aurkezten du non ez dakigun, sekula ez, marrazo erasotzailearen ez kokapena, ez asmoa, ezta horren identitatea ere.

ebakitzen eta moztzen dituztenak. Horrela, narrazioaren pertsonaiek ez dakite non, nondik edota noiz pairatuko duten eraso. Horrela, obra honetan, ozeanoaren sakontasun iluna erabili beharrean, arriskua itsasoaren gainazalean dago, gizakiok kokatzen garen tokian. Behar izango genukeen informazio nahikoa salbu egoteko gugandik aski gertu dago, oso hurbil ere. Alabaina, eguzkiak itsutzen gaitu.

Egoera horrek oihartzuna eta isla metaforikoa du egungo egoera aditzera emateko. Hau da, informazioa mugatu beharrean, informazioz itotzen gaituzte; egun, askotariko iritzi amaiezinez osaturiko eguzki erraldoi itsugarriak kalitatezko ezagutza bat desagerrarazi du. Makina bat albiste, bideo, audio, eztabaida edota irudi edukitzeak ez du esan nahi ongi informatuta gaudenik; izan ere, horrek guztiz kontrakoa dakar. Iritzia emateko eskubidea zapaldu beharrean, nonahi eta noiznahi nork bere ikuspuntua emateko aukera zabaldu izan da, nahiz eta hori erabat hausnartuta edo helburu hezitzaile batekin bideratuta ez egon.

Baina itxurazko eskubide hori ez da dohainik ematen. Marrazoa eta izpiak beti izango ditugu gertu. Gure erabakia izango da horri aurre egitea arpoiarekin edo eguzkitakoak jantziz. A zer nolako gogoia uda irits dadin. ◀



GetxoGasol

Urteko 365 egunetan gaude zabalik

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindegia
- GnG tailerra
- Solaguren Jatetxea

☎ 944 301 500

📍 Getxo eta Berango artean

GetxoGason Euskararekin bat!



irati

MODA GAZTEA ETA ARROPAK

94 491 12 71

iratialgorta@gmail.com

Torreño, 2 48991 - ALGORTA

bai euskarari



Euskarari atara kontuk! Joanes Atxa Olaiz

«Urte barri-barri, txarri belarri»

Abestiek, bertsoek, koplek eta belaunaldiz belaunaldi transmititzen diren ohiturek bitxikeria paregabeak dakartzate barnean. Bizkaia osoan abesten den Urteberri-kanta honek ere, gure hizkeraren, usadioen eta hizkuntzaren inguruko hainbat harribitxi gordetzen ditu.

Urte barri-barri, txarri belarri, dekonak ez dekonari, nik ez dekot eta niri!». Horrela hasten da Bizkaiko herri askotan urte berriari ongi-etorria emateko abestia. Gure amama zenak urtero-urtero abesten zigun, Gabon Zahar gaueko turroiak digeritu eta Urteberri eguneko ajeari aurre egiten laguntzeko. Eske-kopla deritzogun horietariko bat da hau, herriko kaleetatik barrena gabonsaria eskatzen ibiltzen zenekoa. Izan ere, orduko ohiturak gogoratzen dituen kanta da, urte berria auzoko etxeetatik intxaurrak eta gaztainak eskatuz hasten zen garaikoa.

Ez da bertsio bakarra, inondik inora ere. Resurrección María de Azkuek lan handia egin zuen XX. mende hasieran, herrietako kanta, esaera eta ohiturak biltzen. Hark bildu zituen abesti honen lehen aleak eta ordutik, hamarnaka zenbatu ditzakegu Urteberri-kanta berberaren aldaera ugariak: Arratia aldekoak, Bermeokoak, Ondarroakoak, Gernika-koak eta baita Uribe Kostakoak ere.

Nahiz eta bertsio asko eta ugariak izan, bada elementu bat, aldaera hauetan guztietan ageri dena: hasierako errima errepikakorra. Kopla hau hain sarkor eta kantagarri bihurtzen duen osagaia da hasierako errima. Eta hara, aukera paregabea ematen digu ho-

«Urte barri barri
txarri belarri,
dekonak ez dekonari
nik ez dekot eta niri.
Apalazio zalduna
iru erregen eguna,
zotzak eta paluek
txori biorren
kontuek.
Emongo bozu
emoizu
baldin emongo
badozu,
zuri begira gagozan
arte
egiten jaku berandu.
Apalazio miri
montaña
hiru intxaur eta lau
gaztaina».

nek gure hizkerari buruz hitz egiteko!

Mendebaldeko euskalki osoan zehar, bada presente dagoen arau fonologikoa. Honek, hainbat hitzetako *e* letrak *a* bihurtzen ditu, *r* letraren aurretik badaude. Hau da, *berri* hitzari, *barri* esaten diogu Bizkaian eta *txerri* hitzari, *txarri*. Gure hizkeraren aldaketa horri esker, koplaren hasierak berebiziko indar eta nortasuna du: «Urte barri-barri, txarri belarri».

Erregela hori askotan agertzen da hitz askotan, esaterako: *bardin*, *garriko*, *hasarratu*,... eta baita hainbat izenetan ere, adibidez, Erandioko Akarlanda. Baina gure hizkeretan bakarrik erabiltzen al da erregela hori? Noski ezetz. Nafarroa Behereko eta Zuberoako herri batzuetan ere *bardin* erabiltzen da, eta badaude bokal aldaketa horren bitartez sortutako hainbat hitz, Euskal Herri osoko hizkeretan sakabanatuta daudenak.

Kopla honek familia giroan abesteko besterik balioko ez zigula uste genuenean, hainbat bitxitasun ekarri dizkigu. Batetik, zeinen baliagarriak ditugun gure hizkeretako hitzak, baita koplak kantatzeko ere. Eta bestetik, ez dela gure hizkera ezaugarri bereizi eta bakarluak dituen euskalkia. Nahiz eta hamaikatxo kilometrotara egon, denok hitz egiten dugu oso antzeko edo *bardin*. ◀

Musikatuak
HIRUKAREN musika-atal berria!



Hamabostean behin, eguenean, erreproduzio-zerrendak argitaratuko ditugu webgunean, askotarikoak, kolaboratzaileek eurek sortutakoak

www.hiruka.eus

ASTRABUDUKO FOTOCLUB-A

Argazkizale 13 urtez

**Astrabuduko Fotoclub (AFC) kultur elkartea
13 urte baino gehiago daramatza argazkigintzan murgilduta.
Askotariko adin, lanbide eta bizilekuetako 46 lagunek osatzen dute taldea,
eta argazkigintzarekiko grina dute lotura.
Adiskidetasuna, talde-lana eta argazkigintzako ezagutzak partekatzea
dute helburu. Gainera, taldean irteerak egiten dituzte, eta urtean bi
argazki-erakusketa antolatu ere. Erakusketa horien helburua da jarduera
kultural hori udalerri eta eskualdean zabaltzea. Hemen dituzue haien
azkenengo erakusketaren argazkiak; goza itzazue!**

ARGAZKIAK: **ASTRABUDUKO FOToclub**



Riaño © Javier Paris



Etenaldi saihestezina © Sabino Madariaga



Relax Surf © José Manuel Rodríguez



La Pancha © Fernando Salcedo



Ermita bat lakuaren ondoan © Ignacio Martínez



Áliva © Félix Pérez



Roque Cinchado © Iñaki Laka



Guarguero putzua © Javi Díez



Emakumea © Aitor Talavera



© Angel García




Bakardadearen zain © Javier Trapero



Ama © Juan Ignacio Llana



Ilunabarra Barrikan © Santiago Villanueva



Domine Bilbao Hotela - Puppy isladak © Alfredo Ruiz de Gordejuela



Etxea sumendiaren oinean, Arnarstapin © Juan Carlos Sancho




Beste ikuspuntu batetik © Emiliano López




Begirada galdua © Unai Aranzamendi



Pyramidalis © Julia Muñoyerro



Purutasuna © Joserra Martínez



Orkidea mamua © Damaso Alonso



Martin arrantzalea © Pedro González



Iturrigorri © Santiago Mendiola



Koartza gorria © Mikel Abia



Pas-eko ibaia © Pili García



Egunsentia © Ma Carmen Díaz de Lezana

Lehen/Orain **Urduliz, Andra Mari elizaren ingurua Santa Marinako baselizatik**



ITURRIA: INDALECIO OJANGUREN



Uribitakora



ALBE

**Algortako
Bertsolari
Eskola**

TESTUA
Jagoba Pereda
Txopietza

DOINUA
Aita izena

ARGAZKIA
Hodei Torres

Negu luze hau

Urtaro batek aurrekoari
hurrengorarte diotza,
batzutan luze egiten jaku,
bestetan labur ta motza.
Aukeratzetik ez da izaten,
ahal dan neurrian goza.
Irudi hauxe Euskal Herrian
ez dogu horren arrotza;
horrela izaten baita negua
zuri-zuri ta hotz-hotza.

Baina natura txarto jagon ta
lurra gaixotu aibala!
Coronavirus hau sortu dogu
ta ez da bape makala;
Jende artean kutsatzen gara
ta gainera bala-bala,
eskubideak zapaltzen dabiz
ahoa jarriz moxala...
Gaur bizi dogun negu luze hau
ez da bapere normala!

Gure artean pasaportea
eskatuz, a zer ganora!
Etxean bildu aurretik egin
behar antigeno froga,
umeak ere txerta daiguzan...
«pfizer» ta «moderna» gora!
Afrikaraino ez da iristen,
lehen han egiten zan proba...
Itxaropena ez daigun galdu,
Udabarria helduko da!

Urtarril-otsaila

Berango

Urtarrilak 23, domeka

Txotxongilo-saioa: Noa uy, uy, uy!

18:00 | Berango Antzokian

Noak hiru urte ditu eta aitona-amonakaz egun batzuk pasatzera joango da.

Urtarrilak 29, zapatua

Kontzertua: The Beat Shadows

19:00 | Berango Antzokian

The Beatles, Los Brincos... 60. eta 70. hamarkadetako abesti ezagunak.

Urtarrilak 30, domeka

Magia ikuskizuna: Erdi Aroko ipuin magikoa

18:00 | Berango Antzokian

Oliver eta Liuba magoek Erdi Aroko Euskal Herriko jai batzuetara bidaia egingo dute.

Erandio

Urtarrilak 23, domeka

Antzerkia: Gu primer!

19:00 | Josu Murueta kultur etxean

Antzerki honetan balentria handi baten berri emango dute Inazio Ramon eta Nereak: ez amerikarrak, ez errusiarrak, bi euskaldun izan ziren ilargira iristen lehenak!

Urtarrilak 25, martitzena

Berbaldia: Franquismo solo hubo uno

18:00 | Gaztetxokoa

Javier Bucesen hitzaldia.

Getxo

Urtarrilak 23, domeka

Txikitailerra: Robota

10:30 | Getxoko ingurumen aretoa

Umeentzako sormen tailerra.

Urtarrilak 25, martitzena

Berbaldia: Zeuek duzue giltza. Haurren hizkuntza portaerei eragiteko bideak

18:00 | Muxikebarrin

Paula Kasaresek eskainitako hitzaldia.

Urtarrilak 28, barikua

Antzerkia: Nekatutak

21:00 | Muxikebarrin

Antton Telleriaren umorezko ikuskizuna.

Urtarrilak 30, domeka

Tailerra: Neguko sendabelarrak

10:30 | Getxoko ingurumen aretoa

Bolueko hezegunetik ibilbidea egingo da, eta, ondoren, jarabeak prestatzeko tailerra.

Urtarrilak 30, domeka

XXVI. Areeta-Bilbo lasterketa

10:30 | Areetan

Otsailak 6, domeka

Umeentzako saioa: Leihoak

18:00 | Muxikebarrin

Umeentzako ikuskizuna.

Leioa

Urtarrilak 21, barikua

Kontzertua: El Drogas

20:30 | Kultur Leioan

Enrique Villarrealek, Barricada taldeko abeslari ohiak, poemen eta idatzien liburu eta disko oso pertsonal bat kaleratu du. Eszenatokiara zazpi musikarigaz igoko da, abesti berrietatik klasikoetara doan errepertorioa jotzeko.

Urtarrilak 28, barikua

Dantza-ikuskizuna: Arnasa

20:30 | Kultur Leioan

Dantza inklusiboko lan baten estreinaldia: profesionalak eta dibertsitate funtzionala duen dantzari bat oholtzara igoko dira.



Otsailak 11, barikua

Kontzertua: Korrontzi

20:30 | Kultur Leioan

Aita Mari Mediterraneo itsasoan dagoen erreskate-ontziari laguntzeko ongintzazko kontzertua.

Lemoiz

Urtarrilak 23, domeka

Mendi irteera

09:30 | Armintzako bus geltokian

Etzandarri euskal mendi-taldeak urteko lehen txangoa egingo du Maiaga eta Bizkaigane mendietara.

Plentzia

Urtarrilak 26, eguaztena

Berbaldia: Natura denon eskura herritarren zientzia

18:30 | Goñi Portalen

Plentziako Herri Lurra elkarte ekologistak David Henderson aditua gonbidatuko du.

Urtarrilak 21, barikua

Berbaldia: Pentsioak, erreforma berria

18:30 | Goñi Portalen

Plentziako pentsiodunen plataformak Patxi Fernandez ekonomialaria gonbidatuko du etorkizuneko pentsioei buruz berba egiteko.

Urtarrilak 28, barikua

Magia tailerra

18:00 | Goñi Portalen

Magia-jolas ikasteko tailerra.

Urtarrilak 29, zapatua

Zeramika tailerra

11:00 | Goñi Portalen

Buztinaren antzeko kolore-masa abiatuta sormen-piezak egiteko tailerra.

Sopela

Urtarrilak 21, barikua

Proiektzioa: Zaintza tresnak

18:00 | Kurtzio kultur etxean

Hezkuntza-komunitatea zaintzeko eta egindako lana eskertzeko ikus-entzunezko pieza.

Otsailak 5, zapatua

Kontzertua: Gontzal Mendibil eta Urepel abesbatza

20:00 | Kurtzio kultur etxean

Ibilbide luzeko abeslariak eta Sopelako abesbatzak San Joan Gurutzekoren poemak kantatuko dituzte kontzertu berezi batean.



Otsailak 11, barikua

Antzerkia: Winona & Grace

18:00 | Kurtzio kultur etxean

Munduan leku bat aurkitzeko borrokan ari diren bi emakumeren antzerkia.

Urduliz

Urtarrilak 22, zapatua

Magia-ikuskizuna: IMPRO 2

21:00 | Urdulizko kultur etxean

Jesus Manzano eta eta Miguel Moragak antzerki-inprobisazio ikuskizuna egingo dute.



Xabier Amuriza Idazlea eta bertsolaria

«Bizitzako gauzarik ederrenetarikoa izan da bertsolaritzak emandakoa»

Duela urte batzuk bat-bateko bertsolaritza utzi zuen arren, Xabier Amurizak (Etxano 1941) ez ditu plazak utzi. Izan ere, telebistan, irratian, musikan eta idazten dituen liburuen bitartez jarraitzen du bere ezagutzak eta errimak partekatzen. Oraingoan, argitaratu duen azken liburuetako baten aitzakia baliatuta, euskarari eta bertsolaritzari utzi dion ondareaz aritzeko elkartu gara beragaz.

TESTUAK: **ANDER ZARRAGA** ARGAZKIA: **HODEI TORRES** ►

Uharte bat Venusen zure azken eleberriari buruz berba egiteko etorriko zara Getxo-ko Irakurzaleen Txokora. Zer kontatu ahal diguzu horretaz? Iazko udaberrian aurkeztu nuen liburua, baina, horren ondoren, iazko Durangoko Azokaren aurretik, Etxepareren inguruko beste lan bat ere aurkeztu nuen: *Etxepare, jalgi hadi batura*. Hala ere, urtarrilaren 27an, Irakurzaleen Txokora eramango dudan liburuak gizarte inteligentetago baten dinamika eta sorrera iradokitzen du. Zati bi dauzka. Lehenengo partea fusilamendu baten simulakro batekin hasten da; gatazka handi baten ondoren, gizatalde bat fusilatzerara doaz, baina, azken momentuan libratu egiten dira eta horrelako lurralde isolatu batean konfinatzen dituzte gosez hil daitezen. Orduan, giza talde hori konturatzen da irla batean dagoela, eta ikusten dute bizirauteko lana egin behar dutela; lortu ere egiten dute, eta bestelako gizarte bat antolatzea lortzen dute. Liburuaren bigarren zatian, fusilatu nahi zituzten mundu horretako ikerketa-ontzi bat uhartera iristen da, eta beste zibilizazio bat aurkitzen dute bertan. Bertan aurkitzen dutenarekin txokea hain handia da, non itsasontziko kapitainak uharte hori Venus dela esaten duela, gure planetan ez dagoelako horrelakorik. Hor hasten da zibilizazio bien arteko harremana eta kontrastea

«Liburuan ez dut zuzenean esaten, eleberrian ez dagoelako inolako diskurtsorik, baina nolabaiteko utopia bat aurkezten dut. Distopia ere izan zitekeen, baina nik aspaldi erabaki dut era inteligentean bizitzea, eta uste dut lortu dudala; beraz, ez da hainbesterako utopia»

azaleratzen, eta konturatzen dira mundu bien artean kontrastea egundokoa dela arlo guztietan. Nire intentzio intelektuala izan da gizarte inteligente baten posibilitatea garatzea, utopia baten modukoa, hain zuzen. Orain arte, idatzi ditudan gauzak beti abiatu dira errealtatetik, baina oraingoa guztiz fikziozko istorio bat da; hori bai, fikzio inteligentea.

Fikzioa izan arren, zerbait iradoki gura duzu horregaz? Liburuan ez dut zuzenean esaten, eleberrian ez dagoelako inolako diskurtsorik, baina nolabaiteko utopia bat aurkezten dut. Distopia ere izan zitekeen, baina nik aspaldi erabaki dut era inteligentean bizitzea, eta uste dut lortu dudala; beraz, ez da hainbesterako utopia. Hala ere, azpian badaude intentzio batzuk, eta horien artean hizkuntza bera dago, uharte horretan erabiltzen duten euskara hemengoa baino askoz aurreratua goa baita. Beraz, hor ere kontraste handia sortzen da, eta seguru nago Algortara joateko deitu didaten batzuek puntu hori nabarmendu nahiko dutela, hau da: hizkuntza sinpleago baten erabilera, kasu honetan aditza sinplifikatuz. Eta, horretaz gain, harremanak bezalako beste hainbat gai sinplifikatuagoak daude zibilizazio hartan, eta askoz aurreratuagoak intelektualki.

Uste duzu utopia hori euskararen errealtetera ere ekar daitekeela nolabait? Bada, bai. Nik esaten dudanean era inteligentean bizitzeari lortu dudala, hein handi batean sinplifikaziotik dator, baina hori diskurtsoa izango litzateke, eta nobelan ez dago halakorik. Askotan, gauzak behar ez diren moduan edo mailaraino aurreratzeak eramaten gaitu halako konplexutasun harrigarrietara, baina hori zertarako? Hori hizkuntzan argi eta garbi ikusten da. Horrela planteatu ez arren, euskararen ditugun zailtasunei buruzko halako mezu bat iradokitzen da eleberrian: hizkuntza sinplifikatzen dugu edo ezin izango dugu beste hizkuntza handiagoekin lehiatu. Hein handi batean hori da gertatzen ari dena, baina hori bestelako gai bat izango litzateke. Nik horretaz baditut ideia batzuk, eta liburuan horrelako hizkuntza mota bat jartzen dut uharte horretan. Gainera, irakurle batzuei galdetu diet ea hizkuntza hori ulertu duten, eta baietz esan didate, eta erabiltzeko askok are errazagoa dela ere esan didate, daukagun aditz madarikatu hau baino.

Beraz, pentsatzen duzu euskara sinplifikatu egin behar dela nolabait? Azken batean, nire konklusioa da ezin dezakegula lehiatu askoz sinpleagoak diren hizkuntzekin. Zuk etxera sartzeko giltza bat daukazu, baina pentsa bakarria izan beharrean 200 bazenitu, segun barruan nor dagoen, zertan ari den, zenbat datozen kanpotik... Azken batean, gure inguruko hizkuntzek aditz forma bakarria duten bitartean, guk euskaraz 200 forma ditugu.

Eta norantz uste duzu jo beharko lukeela sinplifikazio horrek? Ideia batzuk izan arren, oso argi daukat norantz ezin gaitzekkeen joan: erabilerak eragiten duen degradaziora; aurre-rapenagatik egin behar dira aldakuntzak, ez degradaziorako. Aditzaren kasuan, adibidez, euskaraz hitz egiten dutenen artean % 75a galdu da; ia inork ez du *ikusit* esaten, gehienek *ikusi dizut* esaten dute, eta *ikusit zinduz* ezta pentsatu ere; aditzaren erdi hori galdu egin da. Subjuntiboa ere ia inork ez du zuzen erabiltzen, bakarrik sinpleena: *ona izango zen* esaten da, *ona izango litzateke* esan beharrean. Hori normalizatu egin da, eta ez dugu berreskuraturiko. Baina uneren batean sinplifikazioa onartu eta nagusitzeko moduren bat etorri beharko da, hor ez dagoelako aditza bakarrik, lexikoa eta beste hainbat kontu daudelako: nik *Euskara batuaren bigarren jaiotza* liburuan adierazi nuen gure hiztegiaren 20.000 hitz falta direla oraindik; hitz komunak, internazionalak, hain zuzen. Euskaldunok ados jartzea zaila da, baina hiz-



Bertsolaria izateaz



kuntzak irauten dute edo hil egiten dira, eta horri irtenbide bat bilatu beharko diogu.

Abenduan, Eusko Ikaskuntzak Manuel Leikuona Saria eman zizun, bi urteko atzerapenagaz. Bertsolaritzaren munduan egindako lana goraipatzeko saria izan zen. Horren ondarea bizirik dagoela sentitzen duzu? Aurten 40 urte beteko dira nire lehen txapela irabazi nuenetik –1982ko Bertsolari Txapelketa Nagusia, Donostia–, hain zuzen. Garai hura mugimendu euforiko baten moduan gogoratzen dut hainbat arlotan egon zen zabalkundeagatik. Egia da nik txapela euskara batuan irabazi nuela, eta bestelako eredu bat ekarri nuela; nahiz eta kontrakoak ere izan nituen orduan. Baina kontzientzia osoz egin nuen hori, eta, gero, eskoletara ere transmititu zen, jendeak ikas eta sortu zezan. Bai, bertsolaritzarentzako eta hizkuntzarentzako aro ederra izan zen, eta euforia eta pizkunde orokor bat izan zen hainbat arlotan. Mugimendu izugarria egon zen garai hartan,



gainera, Xabier Amuriza apaiza eta Eusko Legebiltzarreko parlamentaria ere izan da, besteak beste.

eta nik eta beste batzuek material asko sortu genuen; egiten ari ginenean ez ginen konturatzeko horrek izango zituen ondorioez, baina ekarri du nonbait. Ni bertso-eskola askoren katalizatzaile baten modukoa izan nintzen orduan, baina hor mugimendu oso zabal bat egon zen, ni gabe ere sortuko zena. Gainera, urteetan Algortan bertan eta Getxo aldean egon nintzen bertako eskola eta bertso taldeekin, eta hori bertsolaritza bera bezain ederra izan zen niretzat; garai horretan, Euskal Herri osoan egon nintzen bertsotan, eta ia-ia egunero joaten nintzen bertso-eskolaren batera. Ni ekarpen batzuk egitera joan nintzen, eta ondo atera zitzaizkidan, jende askok ondo hartu zuen, eta pentsatu zuten irakasle moduan ere aritu ahalko nintzela. Aro ederra izan zen hainbat zentzutan, eta niri bizitzan gauzarik ederrenetarikoa izan da bertsolaritzak eman didana. Nik hori orain oso gogoan daukat, eta horregatik ontzat eta poz handiz hartu nuen Eusko Ikaskuntzak emandako aitortza.

Euskararen sinplifikazioa
«Horrela planteatu ez arren, euskarari ditugun zailtasunei buruzko halako mezu bat iradokitzen da eleberrian: hizkuntza sinplifikatzen dugu edo ezin izango dugu beste hizkuntza handiagoekin lehiatu»

Azaroan, Uribe Kostako gazteek Bizkaiko txapelketa irabazi zuten, hori ere zure ondarea dela esan daiteke? Nik nire parte izango dut, baina batez ere Algorta eta parte horretako jendearena da meritua. Nik nire diskurtsoa ematen nuen, baina horren atzetik antolakuntza handia dago, eta horren guztia atzetik ALBE. Hizkuntza eta bertsolaritza zabaltzeko lan ikaragarria egin dute, eta horrelako fenomeno miragarria bat izan da Algortakoa: hainbat pertsona inplikatzeko eta horretatik hainbeste partaide eta bertsolari ateratzea ez da leku guztietan gertatu, eta are gutxiago Getxo dagoen eskualde gehienbat erdaldun batean. Lanari, ilusioari, antolakuntzari eta jende kapazari esker sare oso garrantzitsua sortu da hor, eta fenomeno bat sortzea lortu dute.

Duela urte batzuk utzi zenituen plazak eta bat-bateko bertsolaritza. Faltan botatzen duzu? Adinak ez du barkatzen, eta 80 urterekin ibilerak egitea eta konpromisoetara aritzea neketsua da. Gainera, aurea hartu nahi nion mentalki ondo nengoela; eta beste gauza batzuetarako denbora utzi dit horrek. Horri esker, bestelako plaza batzuetan parte hartzen dut: adibidez, *Biba zuek!* ETB1eko telebista saioan edo *Faktoria* irrati-saioan parte hartzen dut, baina ez da bat-bateko bertsolaritzako ibilbide hori. Algortako Irakurzaleen Txokoa ere nolabaiteko plaza bat da, eta gustuz eta ilusioz joango naiz. Baina horrek ez dauka bat-bateko bertsolaritzak daukan urduritasun, tentsio edo beldur puntu hori, nik ez daukat adina horretarako. Orain, nahiago dut lasai bizi; esan dudana moduan, era inteligentean bizi nahi dut.

Dragoi Bola-ko itzultzaile lanetan aritu zinen 90eko hamarkadan. Horrek belaunaldi oso baten hizkuntza-ohituretan eragina izan duela aitortu dizute askok. Nola sentitzen duzu zuk? Egia esan, egin nuenen ez nuen horrela ikusi: ni lan bat egitera joan nintzen, nire hizkuntza-irizpideak erabiliz. Gerora, askok esan didate hori bera, eta, horrek, harrotu eta poz handia ematen dit aitortza hori jasotzea. Hala ere, bertsolaritzan eta idazten zurrumbilo horretan guztian nenbilela, baten batek esan zidan ondo zegoela, baina ez nukan horrelako eragina izango zuenaren kontzientzia. Gainera, ikusleak umeak zirenez ez ziren gai hori transmititzeko, gurasoen bidez ez bazen. Urteak pasatu eta gero, esan didate horrek eragin zuela, eta nik harrotasunez eta poztasunez hartu dut. Zahartzaroak ere poz handiak ekartzen ditu, eta gazteago hil izango banintz gauzok ez nituzke gozatuko. ◀

Uribe Kosta Bizkaiko Bertsolari Gazteen BBK Sariaren irabazleak

«Bakarka agian ez gara beste bertsolarien parekoak, baina taldean moldatzen gara»

Uribe Kostako taldeak Bizkaiko Bertsolari Gazteen BBK Saria irabazi zuen 2021eko azaroan, Lea Artibaiko taldearen aurka egin zuten finalean.

ANDER ZARRAGA ►

Uribe Kostako taldeak Bizkaiko Bertsolari Gazteen BBK Saria irabazi zuen 2021eko azaroan. Maialen Lagok, Peio Lagok eta June Diazek osatu zuten 18 urtez azpikoen taldea; aldiz, 19 eta 26 urte bitarteko kideak izan ziren Mikel Arrate, Oihan Diaz eta Peru Irastorza. Uribekostarrek aurrez aurre izan zuten Lea Artibaiko taldea, eta 443,5eko puntuazioagaz gailendu ziren, bi puntuko aldeagaz; beste taldeak 441,5 puntu eskuratu zituen. Saioaren epaimahaia osatu zuten Beñat Romerok, Leire Etxebarriak eta Miriam Juarisitik. Aldiz, idazkari lanetan aritu zen Idoia Anzoradia eta saioaren aurkezlea Igor Menika izan zen.

Taldeakide gehienek Bizkaiko Eskolarteko Bertsolari Txapelketan parte hartu dute, beraz, gazteak izan arren, txapelketak ez dira gauza berria eurentzako. «June da ibilbide gehiena duena, azken eskolarteko txapelketan bigarrena geratu baitzen», azpimarratu dute bere taldekideek.

ALBEKO IKASLEAK. Taldea osatzen duten sei bertsolariak getxoztarrak eta ALBEko ikasleak dira. Azpimarratu dutenez, bertso-eskolak egiten duen lanari esker belaunaldi berriak indar handiagaz datoz: «ALBEk lan handia egiten du belaunaldi berriak bertso-laritzara erakartzeko: hainbat saio eta eskola egiten dituzte eskualdean, eta ikastetxeekin ere elkarlan nabarmena egiten dute».

Gainera, horrelako txapelketek belaunaldi berriei erreleboa hartzera animatzen dietela aitortzen du Mikel Arratek: «Txapelketak ikustea klaseetara joatera animatzen zaitu, eta, gero, saioetan parte hartzeko ere deitzen zaituzte; beraz, guri ondo datorkigu horrelakoetan parte hartzea». Hala ere, hainbat bertsolari gazte egoteak bere alde txarra ere baduela diote, ez baitago plaza nahikorik guztientzako. Horretarako konponbidea argi daukate: «Plaza gehiago egon



J. Diaz, M. Arrate, P. Lago, M. Lago, P. Irastorza eta O. Diaz, Uribe Kostako bertsolariak.

Giro onak erakarrita

«Gure aurretik ere belaunaldi nahiko handi bat egon da eskualdean, eta, nerabeak izanda, asko erakartzen gaitu daukaten giro onak eta egiten dituzten jarduerak. Ondo dago ere eskualdean bertsolari beteranoagoak daudela ikustea, baina gehien erakartzen duena da beste bertsolari gazte batzuk ikustea»

beharko litzateke, pandemiak hori asko baldintzatu arren».

Txapelketan, Uribe Kosta baino euskaldunagoak diren eskualdeetako bertsolarien aurka lehiatu behar izan dira, baina horrek ez ditu kikildu. Beste taldeetan gertatzen den ezbezala, hasieratik hasi ziren seiak mantendu dira finalera arte. «Guk etengabe elkarrekin kantatu dugunez, horrek ere lagundu digu elkartzen eta gauzak hobeto egiten». Azaldu dute herri ez hain euskaldunetan bertsolaritzan sartzeko erreparo gehiago egon daitekeela, baina eskolak egiten duen lana berebizikoa dela azpimarratu du Oihan Diazek: «Aspaldi, Josu Landeta etorri zitzaigun ikastolara, eta gurekin aritu zen bertso-eskolak ematen; horrek, gazte asko erakarri zituen, eta batzuk ALBE-n bukatu genuen».

June Diazek, bere aldetik, azaldu du prozesu horretan askotariko etapa batzuk ere badaudela: «Ikastolak behartutako ikasgaitik hasita, gero, ikastoletan egiten diren bertso-eskolak, eta, azken pausoa, ALBEra etortzea da». ◀

Hezkuntza

hiruka

Gehigarri berezia

179. zenbakia

2022ko urtarrila



Koloreztatu zure etorkizuna



IBAIZABAL
Haur
Hezkuntza

**GAUR LANA PROIEKTUKA EGITEKO
ESPERO ZENUEN PROPOSAMENA**
Egin **klik** eta piztu ideiak!



Ezagutu proiektua: klik.ibaizabal.com

 **IBAIZABAL**

Gurutze Diez Rodrigo Hezitzailea

«Ez gaude prestatuta emozio jakin batzuei a ez baitugu horiek kudeatzeko baliabide em

Sentimenduak naturaltasunez azaleratzea eta horiek kudeatzeko tresnak izatea berebizikoa da ongizate pertsonalerako eta heziketarako.

ANDER ZARRAGA

San Nikolas Ikastolako Haur Hezkuntzako irakasle izan ondoren, Gurutze Diez hezitzailea adimen emozionalen inguruan espezializatu zen eta, gaur egun, famili, ume eta helduak az egiten du lan, emozioen kudeaketaren inguruko hainbat aholku eta ikastaro emanez. Besteak beste, Siente izeneko hezkuntza-programa sortu zuen, eta ikastaroak ematen ditu hainbat udalerrri eta hezkuntza zentroetan; adibidez, 2021eko azaroan, Uribe Kostako Mankomunitateagaz ikastaro bat eman zuen. Bere lana www.siente.org webgunean jarraitu daiteke; gainera, edozein zalantza argitzeko bere helbide elektronikoa ere badu: siente@siente.org.

Gaur egun, asko entzuten da umeen hezkuntza emozionalaren inguruan lan egitearen beharraz, baina nola hasi zinen zu mundu horretan lanean? Duela zortzi urte bularreko minbizia izan nuen eta, orduan, nire inguruko inork ez zuen jakin emozionalki nola kudeatu gertatzen zitzaidana. Orduan, adimen emozionalaren inguruko master bat,



«Aurreikuspen oso altuak saltzen dizkigute amatasunaren idealen inguruan, ama eta aita moduan nolakoak izan behar garen, hain zuzen ere. Baina, gero, errealtatea oso bestelakoa da, eta hainbat gatazkagaz aurkitzen gara: egunerokotasuneko nekea, estresa, frustrazioa...»

GURUTZE DIEZ RODRIGO
HEZITZAILEA

yoga eta meditazioa egiten hasi nintzen sentitzen nuen guztia kudeatzen ikasteko. Konturatu nintzen nire inguruan eta gizartean, oro har, ez gaudela prestatuta emozio jakin batzuei aurre egiteko, ez baitugu behar besteko baliabiderik. Umeei ere gertatzen zaie hori bera; beraz, klasean gune bat sortu gura izan nuen ikasleek epaituak izan gabe sentitzen zutena adieraz zezaten. Horretaz gain, Siente izeneko hezkuntza-programa ere sortu eta San Nikolas Ikastolan hasi nintzen aplikatzen, emozioen kudeaketarako hainbat baliabideren bitartez.

Umeen emozioak kudeatzeari buruz berba egiten dugunean, non jartzen duzu ardatza?

Batez ere, sentitzen utzi behar zaie; hau da, ez dezatela pentsa sentitzen dutena ez dela bidezkoa. Gainera, asko mitifikatzen da emozio onen eta txarren arteko aldea, eta ez diegu tristura edo haserre sentitzen uzten, ez dakigulako hori nola kudeatu eta, umeek hori adierazi beharrean, nahiago dugu ezkutatu dezaten. Horregatik, nik asko azpimarratzen dut sentitzen utzi behar diegula, eta guk ere sentimendu horiek azaleratu behar ditugula: nire umeak ez banau inoiz negar egiten edo haserre ikusi, eta hori konpontzen, ez diot adibiderik emango, eta ez du jakingo zer egin berari gertatzen zaionean. Eredua oinarri moduan jartzen saiatu behar gara beti.

Gerora, prestakuntza hori familien arlo-ra ere eraman duzu, zergatik? Ez daukala-

hiruka

HARTU BOLADA ONA GUGAZ. EMAIOZU BULTZADA ZURE NEGOZIOARI!

Zure enpresaren edo negozioaren urte osoko publizitate-kanpaina jaso gura baduzu ipini zaitez gugaz harremanetan:

944 911 337 / 688 811 368 • publi@hiruka.eus

Hamilton
IDIOMAS

Ikastolak
HAMILTON Play-School
Enpresak
INGELES ALEMANIERA FRANTSESA
INGELES TEKNOLOGIA BITARTEZ

Taldeak, enpresak eta partikularrak
Eskolaz kanpoko ekintzak
Maila guztiak
Ingelesa hiru urtetik aurrera
Taldea txikiak
Inglaterran egonaldiak

SOPELAN, Dr. Landa 4.
SOPELAN, Sipiri 11.
946 763 012 - info@hamiltonidiomas.com

urre egiteko ozionalik»

ko zentzurik eskolan emozioak kudeatzen irakastea eta horiek kaleratzeko gune bat sortzea, gero etxean berdina ez bada egiten. Beraz, prestakuntza hori umeen eremu guztietara eramaten hasi nintzen eta, horren ondorioz, hainbat ikastaro eman ditut; gainera, azkenaldian, gurasoen emozioak kudeatzeko ariketakaz hasi naiz, ezin ditzakegulako gure umeen emozioak kontrolatu gureak ezin baditugu kudeatu. Bestalde, azken ikastaroetako muina izan da amatasuna desmitifikatzea, bikotearekiko harremana kudeatzea seme-alabak ditugunean eta helduen auto-zaintza.

Familiaren barne-komunikazioaren garrantzia azpimarratzen duzu. Zein aholku ematen diezu zuk alor horretan? Tailerretan garrantzia gehien duen ataletako bat da, gainontzeko guztiak modu egokian funtzionatzeko oinarria delako. Seme-alabak zugaz komunikatzeko, lehendabizi, zu, guraso moduan, harreman hori lantzen hasi behar zara; ezin zaitezke polizia modura galdeketa egiten hasi aldez aurretik ez bazara beraiekaz komunikatu. Askotan, gure seme-alabei gugaz komunikatzeko eskatzen diegu, guk hori bera egiten ez dugun bitartean, baina hori ezinezkoa da, gu adibide moduan jartzen ez baldin bagara. Horretarako, komunikazioa berebizikoa da eta, askotan, ohitura sinpleak txertatuz lortu dezakegu, hala nola elkarregaz bazkaltzen edo afaltzen, telebista eta mugikorrek alde batera utzita, noski.

Aipatutakoez gain, zer nolako ikastaroak edo aholkuak eskatzen dizkizute erabiltzaileek azkenaldian? Une honetan, batez ere, emakumeak auto-zaintzaren inguruko ikastaroak ematen ari naiz. Gogoratzen diet, seme-alabez harago, gu ere pertsonak garela eta gure burua ere zaindu behar dugula. Horretaz gainera, nabarmendu nahiko nuke familientzako egiten ditudan ikastaroetara bertaratzen direnen % 98 emakumeak direla, eta umeen heziketaz ari garenean ezin daitekeela emakumeengan utzi karga hori guztia. Umeen hezkuntzan inplikazioa aldebikoa izan behar da, bai amaren aldetik baita aitaren aldetik ere.



Gure ikasleen ahotan



«Esperientzia Duala enpresa giroa ezagutzeko eta gure burua lan mundurako prestatzeko ezinbestekoa da»

Eukene Escudero Lanes (20 urte, Sopelakoa)
Mondragon Unibertsitatean ikasten ari da, Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza myGADE gradu dualako 3. maila.

Non egin dituzu orain arteko ikasketak? Hobby edo zaletasunik dituzu? Ikasketa guztiak Ander Deuna Ikastolan burutu ditut eta batxilergoan zientzia sozialen adarretik joan nintzen. Bidaiatzea, surfa eta argazkilaritza dira nire zaletasunak.

Zergatik aukeratu zenuen myGADE gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea? Nire kasuan enpresagintza aukera erabat bokazionala izan da. Txiki-txikitik imajinatu dut nire burua enpresa batean proiektuak burutzen. Bestalde, myGADEk praktikak eskaintzen zituen lehen urtetik azken urtera, eta ezin izan nuen aukera errefusatu. Azkenik, ikasle bakoitzak duen jarraipen indibiduala eta irakasleekin eratzen den harreman pertsonala nire erabakia are gehiago berretsi zuten.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia? Paregabea izan da. Nahiz eta pandemiak ez digun baimendu esperientzia bere osotasunean gozatzen, egoerara egokitzen jakin dugu. Unibertsitatean zein enpresa giroan, bizipen apartak eta izugarri ikasteko aukerak izan ditut uneoro. Azken urte hauek nire bizitza zeharo aldatu dute, arlo pertsonal zein profesionalen.

Nola definituko zenuke Enpresagintza Fakultatean jasotzen duzun ikasteko metodologia? Desberdina eta eraginkorra da. Enpresen erronka ezberdinei aurre egitera bideratua dago talde lanen bidez. Gainera, urteroko nazioarteko esperientziaren bitartez arazoan ebazpenean trebatzen gara. Bestalde, hizkuntzak kontuan hartzen ditugunez gero, modulu ugari ingelesez burutzen ditugu.

Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna? Harreman interpertsonalak eta esperientzia

Duala. Ikasleen arteko eta irakasleekin sortutako erlazioa aberasgarria, hurbila eta pertsonala da. Halaber, esperientzia Duala enpresa giroa ezagutzeko eta gure burua lan mundurako prestatzeko ezinbestekoa da.

Lanean ari zara ikasten duzun bitartean, Dual ereduari. Non ari zara jardunean eta zer lan mota egiten duzu? Eroskin lan egiten dut, Elorri dagoen enpresako egoitza sozialean. Zehazki marka propioen sail komertzialean nago, Ekodiseinu izeneko proiektu berri batean, ontzi jasangarriagoak lortzeko helburu duena. Nire zereginak hornitzaileekin harremanetan jartzea, txostenak idaztea, bileretan parte hartzea... dira, besteak beste.

Zer nolako ekarpena egiten dizu eredu dualak? Eredu dualak eskainitako ekarpenaren hazkuntza pertsonala eta profesionala azpimarratuko nituzke. Praktikak enpresa berdinean lau urteetan zehar egiteko aukerak izugarriko eragina izan du, esperientzia ugari lortu dudalako eta bertako funtzionamendua ezagutu dudalako. Azkenik, nire denbora eta bizimodua kudeatzen ikasi dut.

Atzerriko esperientziarik izan duzu edo izango duzu? Lehenengo mailan Alemaniara joateko eta bertan nazioartekotu diren Euskal Herriko enpresak bisitatzeak aukera izan genuen. Bigarren mailan ordea, Covid-19 egoeraren ondorioz, ez genuen atzerrira joateko aukera izan. Hala ere, campus arteko erronka bat ebatzi genuen herrialde ezberdinetako ikasleekin. Aurten aldiz, hirugarren nazioarteko esperientzia bizi ahalko dugu eta maiatzean Irlandara joateko aukera izango dut. Azkenik, graduko azken urtean, Erasmus programan parte hartuko dut bigarren lauhilekoan.

ANDER DEUNA IKASTOLAGatzarriñe kalea, 47. 48600 SOPELA • 946 760 266 • info@anderdeuna.eus • www.anderdeunaikastola.eus

Umeak etorkizunerako trebatzen

Gurasoek, irakasleek eta langile ez-irakasleek osatzen duten kooperatiba-elkartea da Ander Deuna; gazteen etorkizunagaz konprometitutako ikastola.

Ander Deuna Ikastola naturan bertan txertatutako gune eder batean kokatuta dagoen kooperatiba-elkartea da eta, Euskal Herrian zehar dauden beste hamaika ikastolakaz batera, Euskal Herriko Ikastolen Elkartearen aritzen da, elkarrengandik ikasiz eta proiektuak batera eramanez.

Ikaslea ulertzeko moduan, konpetentzietan eta integrazioaren pedagogian oinarritutako eredu pedagogikoa ezartzen dabilta azken urteetan; Haur Hezkuntzatik batxilerrera. Azaldu dutenez, euren ikasleak etorkizunean euskaldun konprometituak eta eleanitzak, kritikoak, erabaki hartzaileak, ekintzaileak... izan daitezen eragin gura dute.



Ingurune paregabean kokatzen da Ander Deunak Ikastola, naturaz inguratuta.

110 ikastolakaz batera ari dira elkarlanean

Horregaz batera, etorkizuneko ikasketei begirako orientazio zuzen eta pertsonalizatua, ikastolan bertan prestatutako janari zerbitzua eta eskolaz kanpoko aktibitateen eskaintza zabalak eskaintzen dute.

SAN NIKOLAS IKASTOLAAreneazpi, 15 48991 GETXO • 944 30 54 78 • ikastola@sanikolas.eus • www.sanikolas.eus

San Nikolas Ikastola, erdigunean zu

Berritzailea, gertukoa, inklusiboa, euskalduna eta kooperatiboa da San Nikolas Ikastola. Beste kulturekiko zabaltasunaz euskal kultura sustatzen du.

Urte batetik hasita eta 16 urtera arte hizkuntza murgiltze ereduaren kalitatezko hezkuntza eskaintzen du San Nikolas Ikastolak. Etengabe eguneratutako hezkuntza-sistema pedagogikoaz gain, San Nikolas Ikastolak eskolaz kanpoko hainbat zerbitzu eskaintzen ditu; haurtzaindegia, jantokia edota Uribe Kosta osora heltzen den garraio-azpiegitura, besteak beste.

Guraso-talde baten ekimenez sortutako hezkuntza proiektu honetan, langileak, gurasoak zein ikasleak eguneroko kudeaketan ezinbestekoak dira. Beti ere, euskararekiko konpromiso irmoagaz, hizkuntzaren egonkortasuna eta presentzia indartzea baita San Ni-



San Nikolas Ikastola Algorta auzoan dago kokatuta, Getxoko bihotzean.

Gertutasunak bereizten du San Nikolas Ikastola.

colas Ikastolaren helburuetako bat. Bestalde, irakasleen etengabeko formakuntzak San Nikolas Ikastolak hezkuntzaren kalitatearekiko eta garapenarekiko duen konpromisoa islatzen du.

BETIKO IKASTOLA

Artatza auzoa, 84. 48940 LEIOA • 944 642 364 • info@betikoikastola.eus • www.betikoikastola.eus

Leioako ikastola herritarra

Leioako Betiko Ikastola guraso kooperatiba eta Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko kidea da. Euskarazko hezkuntzan aitzindariak izanik, ikasmaterial propioa dute.

Betikoren eredu inklusiboak euskara eta euskal kultura ditu ardatz. Euskal Curriculumean oinarrituz, kompetentziak eta baloreak garatzeko ikasmaterial eta metodologi propioa dauka, ebaluazio-sistema hezitzailea izanik. Adinari egokitutako bi metodologia lantzen dituzte: HH eta LH 1-2-3ko ikasleakaz konfiantzaren pedagogia eta LH 4-5-6 eta DBHko ikasleakaz EKI proiektua. Familiakaz elkarlanean, naturan murgildutako eremu euskaldun seguru baten alde egiten du Betikok.

Guztion arteko konfiantza eta errespetua ezinbestekoak dira ikasleen garapenerako, beraz, emozioak eta ongizatea asko zaintzen dituzte; horretarako, KIVA, hezkidetzeta eta el-



Gune euskaldun, zabal, seguru eta aberats baten alde egiten du Betiko Ikastolak.

Euskaraz sentitu, pentsatu eta ekin Betiko Ikastolan.

karbizitza proiektuak dituzte. Jantokia ere garrantzitsua da hezkuntza-prozesuan eta, horregatik, Betikon bertan maitasunez prestatutako eta bertoko eta sasoiko produktuakaz egindako menuak eskaintzen dituzte.

REAL ENGLISH GETXO

Biotz Alai plaza, ZG 48991 GETXO • 648 257 572 • realenglishgetxo@gmail.com • www.realenglish.es

Sistema fresko eta dinamikoa

Darabilten metodologia berritzaileagatik bereizten da ingeles-akademia hau, eta ahozko adierazpenean enfasia jartzen du, besteak beste.

Matrikulak egiteko epea ireki du berriro Real English akademiak. Edward Rey-Surman buru duela, Cambridgeko unibertsitatean lizentziaduna, akademia metodologia berritzaileagatik bereizten da; ahozko adierazpenean enfasia jartzen du, eta, aldi berean, ikasleak Cambridgeko azterketetarako prestatzen ditu. 2021ean, Proficiency C2ko ikasleen % 100ek gainditu zuen, eta aurreko urtean baino hiru aldiz ikasle gehiago aurkeztu ziren.

Berrikuntzaren eta teknologia berrien aldeko apustua egiten dute: euren webguneak ahoskatzeko joko bat du, eta arazoak sor ditzaketen berbakaz iragazkia argitaratu dute Instagramen; gainera, *podcast* propioa sortzeari



Algortakoaz gain, Portugaleten ere zabalduta dute akademia bat.

Zapatuetan, berreskuratzeko klaseak dituzte.

ekin diote. Helduentzako programa sozial bat eskaintzen dute ere, ikasgelatik kanpoko ingurune batean hizkuntza praktikatzeko errazteko, baita ikasturte amaierako ekitaldi bat ere haurrentzat eta familientzat, besteak beste.

Eskola hurbila eta integratzailea

Leioako Artatza auzoan dagoen ikastetxe publiko txikia da hau. Ikasleen, irakasleen, langileen eta gurasoen arte harremanak oso estuak dira bertan.

Euskaragaz eta euskal kulturagaz konprometitutako lerro bakarreko ikastetxe familiarra da hau; Leioan dagoen D ereduko eskola publikoa da, eta hezkuntza-komunitatearen sareko parte da 2004tik. Familien partaidetza bultzatzen du: eskolaren eta ikasleen gurasoen arteko harremanak sendotu gura ditu, eurak ikastetxeko komunitateko partaide senti daitezten. Egindako berrikuntza fisiko eta metodologikoen ostean, Artatza-Pinueta ikastetxearen helburua da ikasleek gaitasun eta trebetasun emozionalak eta kognitiboak garatzen laguntzen dien prestakuntza eskaintzea.

Gizartearen beharretan oinarrituta, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuak hobetu gura



Ikastetxea kutsadura akustikorik gabeko gunen natural batean txertatuta dago.

Baloreetan eta elkarriketan oinarritzen dira.

dituzte. Hezkuntza-proiektua baloreetan oinarritzen da eta, eskola txikia izanda, denen arteko harremanak sendoak eta estuak dira. Hala, ikasle bakoitzari atentzioa eskaintzeko aukera dute, beharrei egokitu.

Eleaniztasunaren institutua

A, B, D eta eleantiztasun eredueta nerabeakaz lan egiten duen institutu publikoa da hau. Ikasgelak digitalizatuta ditu, eta aukera ugari eskaintzen ditu ohiko eskolez gain.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eredu guztiak eskaintzen ditu; gaztelania hutsekoa, 3. mailan bakarrik. DBHn eleantiztasun-ereduan ikasteko aukera dago, ikasgai batzuk ingelesez dira-eta. Batxilergoan A eta D ereduak aukera daitezke, Arteak (inguruan bakarra), Giza Zientziak, Gizarte Zientziak eta Zientziak modalitateetan. Ohiko eskolez gainera, askotariko eskaintzak ditu institutuak: elkartrukeak Frantzia, Alemanian eta Danimarkan; baita psikologia-zerbitzuak ere. Ikasgelak digitalizatuta dituzte, eta online-irakaskuntzara bereziki prestatu dira orain. Era berean, hamaika proiektutan parte hartzen du: Eleantiztasuna, STEAM, Aniztasun Curricularra, Bidelaguna,



12-18 urteko neska-mutilek jarduera osagarriez ere goza dezakete bertan.

Teknologia berrietara egokituta daude.

PREE, hezkidetzak-elkarbizitza, EA30, Bizikasia, elkartrukeak eta Normalizazioa; Erasmus+ (K2), Film Sozialak... Gainera, 12-18 urtekoentzako euskara praktikatzeko barnetegietan egonaldiak egiten dituzte.

Datorren ikasturterako matrikulazioa, zabalik

2022-2023 ikasturtean Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan aurre-matrikula egiteko epea zabalik egongo da hilaren 28ra arte.

Euskal Autonomi Erkidegoan dauden 700 ikastetxe publiko zein kontzertatuetan aurrematrikula egiteko prozesua urtarilaren 28ra arte egongo da zabalik. Zentro horietatik, 454 publikoak dira, % 65, hain zuzen, eta gainontzekoak pribatuak edo kontzertatuak. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak hilaren 17an abiatu zuen 2022-2023 ikasturteko matrikulazio kanpaina, «Zure zain gaude» leloagaz.



Prozedura egiteko bide bi

Aurrematrikulazio prozesua egiteko bide bi ahalbidetu dituzte gurasoentzako eta tutoreentzako: alde batetik, euskadi.eus webguneko Hezkuntza Saileko atalean, eta, bestetik, aukeratutako ikastetxean bertan.

2022-2023 ikasturtean Haur Hezkuntzan (HH), Lehen Hezkuntzan (LH) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH) izena emateko prozedura egiteko bide bi ipini ditu Hezkuntza Sailak: alde batetik, online egitea, www.euskadi.eus atariko Hezkuntza Sailaren atalaren bitartez dokumentazioa aurkeztuz, edo aurrez aurre, aukeratutako ikastetxean bertan. Aurkeztu beharreko dokumentazioa eta seme-alabak matrikulatzeko urrats guztiak aipatutako Hezkuntza Sailaren webgunean daude zehaztuta, informazio gehigarriagaz.

Behin behineko onartutakoan zerrendak martxoaren 8tik 15era argitaratuko dituzte eta, hortik aurrera, erreklamazioak aurkezteko epea zabalduko dute. Aldiz, behin betiko zerrendak martxoaren 22an argitaratuko dituzte.

GETXOKO UDAL EUSKALTEGIA

**5 ORDUKO IKASTARO TRINKOAK
CURSOS INTENSIVOS DE 5 HORAS**

MAILA GUZTIAK: A1-A2-B1-B2-C1

**OTSAILAREN 21etik EKAINAREN 30era arte (415 eskola-ordu)
Del 21 de febrero al 30 de junio (415 horas lectivas)**

Otsailaren 16ra arte matrikula zabalik Matrícula abierta hasta el 16 de febrero

GETXOKO UDAL EUSKALTEGIA (RKE eraikina)

Santa Eugenia plaza, 1 (Romo) Getxo
944 646 299 - euskaltegi@getxo.eus

www.getxo.eus/eu/euskaltegi
www.udaleuskaltegiak.eus/eu



Unai Ardeo Herri kirolak eta crossfit-a

«Herri kirolariok abantaila dugu lehiaketa hauetan, dosifikatzen dakigulako»

Hogei urte zituela hasi zen Unai Ardeo herri kirolean, kirolari askoren prestaketa-lanetan ibili ondoren. Orain, gainera, crossfitean trebatzen hasi da.

IKER RINCON MORENO ►

Joan den abenduan izan zen Madrilen Hyrox 2021 crossfit txapelketa, eta bertan izan ziren Getxoko Ardeo anaiak; Unai lehenengo postua lortu zuen, eta Igotzek, aldiz, bigarrena. Askotariko plazetan ikusi dugu herri kirolean, sokatiran batez ere. Hala ere, duela urte bi crossfitean trebatzen hasi eta bere kategoriako txapela jantzi du orain.

Zure anaia ere bertan aritu zen, baita bigarren gelditu ere zure kategorian. Zelakoa izan zen lehia? Bai, 50-54 urte arteko kategorian lehiatu ginen biok; izan ere, nik 53 urte ditut eta anaiak 51. Batera heldu ginen azkenengo frogara eta, horretan, bi minutu atera nizkion. Izan ere, kategoriako talde osoak aldi berean hasten ditu ariketak, eta kirolari bakoitza bere airera doa. Baina, kasualitatez, hirugarren ariketan geundela, anaia eta biok batera joaten ari ginela konturatu ginen. Batean edo bestean, batek edo besteak lehenago bukatzen zuen, baina korrikan harrapatzen genion elkarri; azkenean, batera heldu ginen azkenengo ariketara.

Crossfitean baino, herriko plazetan ikusi zaitugu gehiagotan herri kirolean. Zerikusirik ba al du bata bestearekin? Gu, herri kirolean gabiltzanok, korrikan nahikotxo ibili gara eta, alde horretatik, ondo datorkigu hori. Bestalde, egin behar izandako ariketa asko herri kirolean praktikatzeko ditugun modukoak dira, hala nola txingak, pisua ekarri eta ergometroa. Orduan, hiruzpalau ariketa ezagunak egiten zitzaizkidan, eta, batez ere, proba ordu-



Herri kirolean ere trebea da Ardeo. HODEI TORRES

Txapelketa

«Iraupen luzeko proba bat da, zortzi kilometro korrika eta zortzi workout funtzional konbinatzen dituen. Joan den irailean izan nuen txapelketa horren berri; formatua aproposa iruditu zitzaidan eta izena eman nuen»

bete baino gehiagokoa denez, dendera ondo dosifikatzen jakitea beharrezkoa zen. Eta hor, nik uste dut, herri kirolariok abantaila dugula. Izan ere, nire gimnasioko taldetik oso kirolari onak joan ziren, onenak, baina anaia eta biok baino txartoago gelditu ziren, azken finean, ez zutelako jakin dosifikatzen. Puntu inportantea izan zen hori txapelketa horretan.

Madrilen irabazi ondoren, AEBetara joateko gonbita jaso duzu orain, ezta? Bai! Gustura joango nintzateke Las Vegasera maiatzean, bertan jokatu baina mundu osoko txapelketarako sarrera. Baina txertatuta egotea beharrezkoa izatea eskatzen badute ez naiz joango. Argi daukat hori; hortik ez naiz pasako. Ez banoa, horregatik izango da. Informatuko naiz ea posiblea den izena ematea txertoa jaso barik, zeren, agian, PCR batekin nahikoa izan liteke; hala balitz joango naiz, bai, bestela, ez. ◀

Polentzi Soldevilla Vega UK Saskibaloia taldeko koordinatzailea

«Gure bi ardatzak: lan ona eta euskaraz aritzea»

UK Saskibaloia proiektua 2021 urtearen hasieran jarri zuten martxan, baina bere jatorria aurreko hiru urteetan joan zen gauzatzen. Helburua: kirolean euskaraz aritzea, besteak beste.

IKER RINCON MORENO ▶

Sopelatik Lemoizera bitarteko udalerrietan saskibaloian euskaraz aritzeko taldea da UK Saskibaloia. 2021eko hasieran gorpuztu zuten kluba, eta, diotenez, harrera oso ona izan du tarte honetan. Azaldu dutenez, daborduko sei talde osatu dituzte, eta baita zazpi urtetik beherako neska-mutilentzako saski eskola multzo bat ere.

Euskara hutsean jarduteko saskibaloia-taldea da UK. Zer dela eta sortu zenuten? In-guruotan dauden klubak Sopelarraino baino ez zirelako heltzen eta, ondorioz, Urduliz eta Lemoiz arteko udalerriak gabezia hau zutela ikusten baikenuen sortu genuen proiektu berri hau. Gainera, gure kirolean dagoen euskararen erabileraren gabezia ikusten genuen, eta behar hori asetzeko gogoarekin gure ardatzetako bat da euskaraz saskibaloian jardutea.

Zaila izaten da gurean kirolean euskaraz aritzea? Guk ez dugu uste horrela denik. Gure taldeek euskaraz jarduten dabe entrenamendu zein partidetan. Gero, gure entrenatzaileek beraien erlazioak epaile eta beste taldeekin gazteleraz egin behar badute ez dago arazorik, baina gure klubaren barne lanean euskaraz jarduten da.

Taldera batu direnen jokalariek zer deritzote euskaraz entrenatzeari? Harrera oso ona izan da, jokalaria gehienak euskaraz aritzen dira denbora guztian, eta besteak denbora gehiena. Egia esan, kirol arloan, gure hizkuntzari bultzada berri bat eman ahal zaio-la ikusten ari gara. Helburu hau lortzeko, lan asko egin behar da, eta normaltasuna eman behar zaio euskararen erabilerari.



Jokalaria gehienak Gorliz, Plentzia, Urduliz eta Sopelakoak dira, baita Lemoizekoak ere. © UK

Nola hasi duzue denboraldia?

«Aurreikusitako helburuak askogatik hobetu ditugu. Gure lehen urteko junior neskek (2005) Lehen Mailari eutsi diote. Mutilen kadete taldea (2006-2007) berria da, eta igoera lortu du Bizkaiko Lehen Mailara; biek bigarren fasea A-3 multzoan jokatu dabe. Infantil mailako neska eta mutilen bi taldeak, momentuz, partida guztiak irabazi dituzte, eta lehenak doaz beraien ligaxketan. Eta saski txikiko bi taldeak oso ondo dabilta: txikitxoek partida bakarra galdu dabe, eta miniek bi partidak irabazi dituzte. Oso harro egoteko lana gaude egiten, eta egunero-egunero ikusten dugu jokalarien konpromisoa».

Zergatik uste duzue kirolaren mundua horren erdalduna dela? Lehenik eta behin, entrenatzaile-kurtsoak gazteleraz egiten direlako; beste alde batetik, entrenatzaile eskaldunak oso gutxi direlako; eta hirugarrenik, klubetan garrantzia daukana normalean kirol maila delako eta ez zein hizkuntza erabiltzen dan. Aldiz, guk euskarari zein gure entrenamendu, entrenatzaile eta metodologia-ren kalitateari ematen diogu garrantzia asko, klub mota desberdin bat nahi dugulako. Gure bi ardatzak dira kalitatezko lana eta euskara.

Zeintzuk arazo bizi izan dituzue talde gisa? Arazorik handiena, momentuz, kantxen inguruan daukagu. Gorlizko kiroldegia oraindik ez dute bukatu, eta Uribe Kostako Institutuak ez digu bere kantxa uzten, gure taldean bertako ikasle asko ditugun arren. Aldiz, eskertzekoa da Plentziako eskolako Guraso Elkarteak eta zuzendaritzak eman diguten harrera, baita Plentzia, Gorliz eta Lemoizko udalei emandako laguntzagatik. Ezinbestekoa izan da proiektu hau gorpuzteko eta hazteko. ◀

Dena

«Ondarroako taldeen artean badago konplizitate bat»

TESTUA: ASIER BARRUETABENA RIVALLO
ARGAZKIA: DENA ▶

Kresalaren usaina nabaria da Bizkai-ko kostaldean kokaturik dagoen Ondarroako portuan, eta kolore guztietako itsasontziak lehorra bueltan datoz itsasoari lapurtutakoa herriari emateko. Saregileek, kantu eta kantu bitartean, Dena hirukotearen lan berria topatu dute sareen artean. Jonny Gerriwelt-ek garai batean kantatzen zuen bezala: «Aritzaren semeak bizirik diraute».

Zelan sortu da Dena taldearen proiektua?

Xabat eta Beñatek beti ezagutu izan dute elkar, txiki-txikitatik, eta Unai, ordea, Beñaten klase-kidea izan da beti. Baina talde bezala, Ondarroako musika eskolan sortu ginen. Gustu musikal antzekoak genituen, eta horrek batu gintuen batez ere. Hortik aurrera, gure abestiak sortzen hasi eta aurrera jarrai-tu dugu.

Oso talde gaztea zarete, eta gaur egun, zuen adinekoek beste musika mota batzuetara jotzeko joera daukate. Nondik datoz zuen influentziak? Familia, lagunak, herriko musika talde zaharrak... Ondarroako jendea, orokorrean, oso rock-zalea izan da beti, eta herriko erreferentzia musikalak rockaren inguruan mugitu izan dira: Keike, Baneteuana, Tuboskapi, Keu, Gatz... Eta talde gazteak musika egiten hasterakoan, rock edo punkera jotzea errazena dela esango genuke. Baina gure influentziarik handienak familiak ekarritakoak izan dira, hau da, gurasoek entzuten zituzten taldeak: Negu, Anestesia, Dut, Anari... Horiekin hazi gara.

Ondarrutarrak izanda, zelan ikusten duzue zuen inguruko musika-eszena? Taldeak badaude, egongo dira, eta talde gazteak beti aterako dira. Gainera, Ondarroako taldeen artean badago konplizitate bat. Baina ez da goena da denentzako kontzertuak eskaintzako gunerik; kultura alternatibo horri lekua emango dion espazioak badaude, baina kontzertuak antolatzeke erreleboa ba al dago? Ez dakigu; lehen, gaztetxeetan astero zeu-



Aurrera begirazer?

«Disko bat grabatu berri dugu, Tolosako Bonberenean, eta esango dugu aurrerantzean noiz irtengo den eta abar... Zuzenekoie begira, berriz ere dena bertan behera gelditzen ari da, ez dakigu noiz arte iraungo duen honek, baina badakigu beste behin ere kultura babesik gabe egongo dela».

den kontzertuak, eta zirkuitu bat zegoen. Eta orain, egoerari pandemia bat gehituta, talde hasiberrientzako ia ezinezkoa da izen bat egitea. Dena gogoaren eta antolatzearen kontua da, baina zaila dago egoera.

Zuen azken lanean puntu profesionalago bat nabaritzen da soinu aldetik, bideoklipa... Zelakoa izan da sormen-prozesu guztia, eta norekin egin duzue lan guztia aurrera ateratzeko? Bada, guri horrela ateratu zaigu. Ez dugu profesionaltasun hori nahita bilatu;

guk benetan sinisten dugu gure proiektuan, eta gure abestiak sortzerakoan jolas serio bat bezala hartzen dugu. Ahalegin handia egiten dugu kantuak borobiltzen eta kantu onak egiten guztiaren gainetik. Gero, soinua eta bideoklipak bigarren plano baterako uzten ditugu, eta funtsa kantu onak direla esango nuke. Normalean, abestiak sortzerakoan gitaratik hasten gara, riff edo ideia betetik abiatuta lokalean bueltak ematen sortzen ditugu abestiak; eta, azkenik, letra jarri eta osotasun bat ematen saiatzen gara. *Crowdfunding* bat egin genuen gure lehen diskoa ordaindu ahal izateko, eta estudioan Axularrek lagundu digu, kantuei soinu egokiena jartzen. Baina hori guztia ezinezkoa litzateke familia eta lagunak laguntzarik gabe. ◀



Emoixtaxux muxutxuek

Gozategitarren abesti mitikorako Jon Maia artistak sortutako hitz xamurrek bide emango digute euskarak hitzei **adierazkortasuna** emateko dituen baliabideak aurkezteko. Simple-simple bat, kasurako, errepikapena da. Simple-simplea, erraz-erraza, polit-polita. Oro har, atzizki txikigarriek eta handigarriek ere adierazkortasuna gehitzen diete kontzeptuei, maila batean edo bestean: *errekaxo*, *etxetzar*, *andereño*, *liburukote*... Baina bada beste era bat, antzina gaur baino sarriago eta orokorrago erabiltzen genuena, **leak** adierazkortasunez janzteko, eta ez bakarrik txikitasuna edo handitasuna adierazteko. Baita goxotasuna edota hurbiltasuna eransteko ere. Fonetika arlokoa da, eta **bustidura** deritzo. Bustidura edo palatalizazioa fonema batzuk ahoskera puntuz aldatzean datza. Zehatzago esanda, mihia-
ren lepoa **ahosabairantz** hurreratuta lortzen dugu. Adibidez, *t* fonema bustiz gero, hau da, mihia-
ren kokapena **arean** aldatuta azaldu dugun eran, *tt* ateratzen zaigu: *tipi* > *ttipi*. Ipar-
raldeko adibidea ipini dut, adierazkortasunaren bilakaera argiago erakusteko. Semantikoki,
tipi, berez, txikia bada, *ttipi* txikiagoa litzateke, edo **kutun**agoa, edo biak. Euskal Herriaren
mendebaldean XVII. **gizaldi**ra arte *txipi* forma ere ageri zaigu euskal testuetan, hau da,
t fonemari bustidura birritan ezarrita sortutako hitza (gaur egun *txiki* eta *txiker* aldaerek
jan diote lekua **arteragoko** *txipi* horri). Bustidura bikoitz horren prozesua argiago ikusteko,
hona hemen bilakaera: *t* > *tt* > *tx*. Horixe bera **jazo** da *-to* txikigarriaz ere: *etxeto* > *etxetto* >
etxetxo/*etxetxu* (esaterako, Algortako Portu Zaharreko plazatxoaren izena).

Adierazkortasunaren baliabide fonetiko hori aditz jokoan ere topa daiteke. Euskal Herri-
ko ekialdeko zenbait tokitan, *hika* eta *zuka* tratamenduak bereizteaz gain, *xuka* ere **mintzo**
da, *z* fonema palatalizatuz (haurrekin, adinkideen artean...). Kasutarako, hizketa neutroan
dira adizkia, hitanoz *dituk*/*ditun* bihurtuko litzateke, eta *xuka*, berriz, *dituxu*.

Adierazkortasuna zer den azaldu dugu. Orain zuen kontu *musuak*, *muxuak* edo *muxu-
txuak* eman nahi dituzuen erabakitzea. Edozelan ere, aurretik kendu musukoa. ◀

Berba azoka

Adierazkortasun

Adierazkorra denaren
nolakotasuna; adierazkorra
izateko ahalmena.

Ele

Hemen, hitza (hizkuntza
mintzatuko elementu gisa);
hizketa, berriketa.

Bustidura

Hizkuntzalaritzan, bustitzea,
bereziki bokal edo kontsonante
batena. Palatalizazioa.

Ahosabai

Ahoko barrunbearen goialdea.

Arean

Zerbait.

Kutun

Hemen, maitea eta begikoa den
gauza edo pertsona.

Gizaldi

Hemen, mendea, ehun urteko
epea.

Arteragoko

Lehenagokoa.

Jazo

Gertatu.

Mintzo

Hemen, mintzatzen aritu,
hitz egin.



11 ERRETRATUA

Pertsonak irudietan islatzen

Ispilu bezala, memoria edo artistikoki pertsonen irudiak sortzeko tresna dira erretratuak. Gure gertukoen edo ezezagunen istorioak kontatzeko aukera ematen digute, baita haien begirada nabarmendu ere.

Zer da erretratua?

Erretratua argazki-genero bat da, eta subjektu baten nortasuna bereganatzean datza, gizabanakoa edo taldea izan, argia, hondoa, poseak, teknika edo konposizioa erabiliz. Istoria, mezua edo emozioa ezinbesteko osagaiak dira edozein erretratu-argazkitan.

Erretratuko argazki-mota asko dago; hona hemen mota horietako batzuk:

- Erretratua (estandarra)
- Modako erretratua
- Autorretratua (Selfie)
- Talde erretratua
- Erretratu artistikoa

Hamaika modu daude erretratuak egiteko; ezagunenak, nortasun-agiri edo pose estandar bat egindakoak dira, baina modu asko daude pertsonen isla irudikatzeko. Hala ere, pertsonen erretratuak haiekaz dugun erlazioaren bitartez ere lantzen dira, konfiantza argazkietan ere nabaria baita.

Pertsona ezezagun bati erretratua egiteko, beti da komenigarria komunikazio bat egotea, gutxienez begirada bat, eta elkar onartzea. Baina, betiere, hobeto izango da erretratatu beharreko pertsona ezagutzen saiatzen bagara, horrela bere ezaugarriak nabarmendu ahal izango baititugu argazkietan.

Begiak

Oso garrantzitsuak izango dira begiak gure argazkietan. Gure artean erlazonatzerakoan, pertsonen artean, begiak dira nagusi, eta horregatik dute garrantzia erretratuan. Begiak fokuan egon behar dira beti, arrazoi artistiko batenatik ez bada, eta zaindu beharko dugu begien norabidea. Ez da berdina begiak kamerari begira egotea edo albo batera.



Begiradaren norabidean, hutsunea uztea komeni da, hau da: pertsonaiaren begiek, airea behar dute gure enkoadraketan.

Eskumara begira dagoen pertsona bati, eskuman hutsunea utziko diogu; horrela, ikusleak, eremu horretan pentsatzeko aukera izango du.

Objektiboak

Ez dago objektibo zehatzik erretratuak egiteko, baina egia da askotan erabiltzen den fokala 50 milimetrokoa dela. Objektibo merkeak eta diafragma zabalekoak izaten dira, eta hasiberrientzako gomendagarriak horregatik. Baina edozein fokal izango da baliagarria, gure beharren arabera.

Planoak

Beheko eskeman ikusi ahal dituzue plano mota batzuk; ez dira denak, baina bai orokorrean erabiltzen direnak. Planoan agertzen dena eta kanpoan uzten duguna, informazioa gehitu ala kendu egingo du. Batzuetan, pertsonaren detale bat interesgarria izan daiteke, eta beste batzuetan, aldiz, bere inguruan kokatzea.




Argia

Argia kontrolpean edukitzea komeni da. Beheko adibidean ikus dezakezuenez, argi-itzaletan dagoen talde batek arazoak emango dizkigu: batzuk, oso ilun atera daitezke; besteak, erreta... Beraz, kontuan izan, aukera izanez gero, argia ondo neurtzea eta, bestela, flash edo bestelakoen bitartez gure helburuetara egokitzea.



Hondoa

Erretratueta pertsonaia izango da nagusi, baina beti hondo baten aurrean edukiko dugu, beraz, gure hondoa zer agertzen den eta zer ez oso garrantzitsua izango da. Koloreak, gehitu ahal duen informazioa edo ez... Gauza asko baloratu beharko ditugu, eta horren arabera erabaki, hondoa lausotua edo fokuan ateratzea, edo gure pertsonaia lekuz mugitzea ere. Konposaketa garrantzitsua da, eta pertsona gura dugun lekuan kokatzeak lagunduko du konposaketa garbiago edo artistikoago baterako.



Testuingurua



Plano itxiak erabiltzerakoan, pertsonaren detaileetan sartuko gara, baina haien bizitzaren datuak edo istorioa kontatzeko, askotan testuingurua kokatu behar dugu. Horretarako lagungarriak dira plano irekiagoak, non haien bizitza edo ingurua argazkian sartzen dugun. Beste batzuetan ere, argazki bakar bat ez da nahikoa izango, argazkilaritzan orokorrean, argazki ezberdinakaz informazio gehiago kontatuko dugu-eta.



Adi! Argazki-lehiaketa dator...

Gure argazkilaritza-ikastaroa jarraitzen duzuen artean argazki-lehiaketa bat prestatuko dugu. Geugaz ikasitakoa martxan jarri eta hasi argazkiak egiten, hilabete batzuk barru zuek bidalitako argazkiakaz galeria bat osatuko dugu paperezko edizioan, eta zozketa batean parte hartu ahal izango duzue. Las-ter jakinaraziko dizuegu zelan parte hartu webgunean. Adi egon deialdira!

Otsailean:
Paisaiak

Hirukira olgetan

© GARBIÑE UBEDA

SOLUZIOAK:



Zazpikoa

Aurki itzazu bi irudi hauen artean dauden aldeak. Zazpi dira guztira.



Mezu gordea

Gaur inspiratuta jaiki da Hur. Pijama erantzi ere egin gabe, mikrofonoa hartu eta kantari hasi da, maiteminduak bezala, baina ez da ongi entzuten, bozgorailuak hots gogaikarriak egiten dituelako. Ezaba itzazu Q, W, P, Ç eta Y guztiak eta jakingo duzu zer ari den abesten.

ÇYPGAYLQUPRWYY
PPEQZ ZPAWIPTUWT WNIQKUPPSWPI
PWPEWYZ YQPDWYDANWYZU WYDEÇIPTYUPW
PYETÇWA OWWRÇPDUPYAK ZUÇYWRÇYEKNİÇPNPY
WPBÇYEZÇPALYYA EQYMPAN DÇQÇITQYUTÇYQ
GÇPALUWR MAYWITAPWÇSWÇPUNYWPZ EPWPTÇA
HPPERWYIOÇPTWZAGZ WPHITWZ EGQWIN DWUGYU
QETÇPA TYXİÇYWMENYLEÇYTA EYPRI BİWATQ
QYPGEÇYLYPAN SİWNARTPU ZQAIÇYPGWYUR.

PÇÇAUWR EÇYPPURÇYPIA
EÇYPGİÇYPN DÇUYP

Eta zein da abesti hori kantatzen zuen taldearen izena?

Ez badakizu, jarri iruditxo bakoitzari dagokion hizkia ondoko biribilean eta asmatuko duzu. Ondoren, marraz ezazu atera zaizun hori, zure koadernorik maiteenean.



ALFABETO A



Bakoitzari berea

Lotu hitz bakoitzari dagokion irudia. Kontuan hartu modu bat baino gehiago izan dezakegula gauzak izendatzeko, eta hemen ageri dena ez dela beharbada zuk ezagutzen duzuna.



Pareak bai!

Konturatu bazara, igel guztiek badute bikotea, hiruk izan ezik. Hiru horietatik bik ez dute parerik, eta hirugarrena hiru aldiz ageri da. Gero, hemen ikusten dituzun igel hauek munduko igelik koloretsuenak dira, baina zeuk margotu beharko dituzu.



Portu Zaharra, gaztedi berria**GORKA MOSTAJO GALDUROTZ** Gizarte-langilea

Iragan den 2021eko anormaltasunetik, Portu Zaharreko jaiak bota izan ditut faltan gehien. Bai Portuaren beraren edertasunagatik eta baita lekua horren txikia izaki, erreza delako aspaldi ikusi gabeko jendearekin elkartzeko. Azken jaietan, aspaldi ikusi gabeko ikaskide ohi bat hurbildu zitzaidan. Asko poztu ginen elkar berriro ikusteaz, eta gogotsu agurtu genion elkarri. Behin ikastolako batailatxoak gogoratuta, segituan bota zidan politikan aktibo ikusten ninduela, eta asko poztzen zela ni EAJn pentsatzen dudana adierazten ikusteaz, ez dela erreza, gaur egun, politikan murgiltzea eta are gutxiago gaztea izanda... Ez nuen komentarioa etortzen ikusi eta, benetan, asko eskertu nion; batez ere, laguna ezker abertzale inguruan mugitu denean betidanik. Danetarik entzun behar izan dut alderdi bati aurpegia ipini, iritzia adierazi eta sinisten dudanean lan egiteagatik: kriteriorik ez dudala, diruagatik nagoela...

Aurten Europako gazteriarena da, EBko politika guztietan gazteria txertapena sustatzeko urtea da, eta nik, ikastolako lagunak nirekin egin bezala, zutabea probestu nahi dut politikan era eraikitzailean murgildutako gazte guztiak zoriontzeko: EAJn, EH Bildun, PPn, PSOn, Podemosen... Norbaitek imaginatzen du etorkizuneko gizarteak gaurko gaztedia politikan murgilduta egon gabe?

Estutu eta estutu**AMAIA ARRIAGA** Langile publikoa eta LABeko kidea

Egun librerik ez! Horixe opari Erandioko agintariak udal-langileoi. Eta hor gabiltza protestan, egun libreek ematen duten bizipoza neurtezina delako. Baina, bereziki, etxek etxeko laguntzaileak ari dira, astero, udaletxe aurrean atsedenerako eskubidea aldarrikatzen, zama fisiko, psikiko eta emozional handia duten zainketa-lanetan irauteko ezinbestekoak direlako egun libreak.

Lan-baldintzak txartuz erantzun digute, zaintza lanetan ari diren emakume-gizonen lana baloratzeko, baldintzak hobetzeko eta soldatak igotzeko gure eskariari. Langileak hamar egunez ordezkatzek dakarren gastua aurrezteari eman dio alkateak lehentasuna: etxeko laguntzaileak etxe bakoitzean egiten duen denborari eguneko minutu pare bat kendu, etxekoek ez dutelako ezta nabaritu ere egingo... Eta hortxe daukagu aurrezpena!

Bost zerbitzutan 10 minutu aurreztuta, langileen eguneko lanaldia beste horrenbeste murriztu eta egun gehiago ateratzen da urtean lanerako, jakina. Kudeatzailerik bikainak agintari hauek! Langileak ordu kopuru bera lan egingo du urteko, baina atsedeen egunak galduta. Eta, zer? Zer inporta langileak? Zenbat hitz potolo zaintzaileen lana goraiatzeko, zaintzaileak zaindu beharraz!!! Zakurraren putza!

Horoskopoa**Ura**
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Egin ezazu geldialdi txiki bat, eta has zaitez hausnartzen zer egin duzun azkenengo urtean. Zerbait lortu ez baduzu, ekin, eskura duzu eta!

**Otsoa**
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Zure egoera ekonomikoa aztertzeke eta beharrezkoak ez diren gastuak ezabatzeke plan-teamendu bat egiteko unea iritsi zaizu.

**Adarra**
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Ezohiko egoera honetan logikoa ez dirudien arren, beste leku batzuetako pertsonakaz harremanetan hasteko une aproposa duzu.

**Aitzurra**
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Maitasunaren arlo korapilatsuan, komeni zaizun pertsona batek zure arreta mereziko du. Itxaron ezazu une egokirako.

**Hostoa**
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Oporrak urtarriaren amaieran? Arraro, baina, zergatik ez? Ahal baduzu, behintzat, zuk zeuk aukeratu noiz disfrutatu.

**Eguzkia**
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Surfean trebea ez zarela esan duzu inoiz, baina seigarren honetan, COVID-19aren olatuak bete-betean harrapatu duzu.

**Garia**
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Lanarengatik nekatuta zaudela dirudi, bada, bazter batean utzi beharrak eta has zaitez kirola egiten.

**Lastoa**
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Gabon guztiak konfinatuta egon ondoren, ez larregi desfasatu orain, etxeratzeko ordua berdin-berdin mantendu gura dute eta.

**Iratzea**
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Baikortasunez beteta zaude egunotan, agian ez suziriak botatzeko moduan, baina duela egun batzuk baino askoz gehiago.

**Meta**
(Irailak 17-Urriak 16)

Ohi den bezala, kezkatzen zaituzten eta konpondu gura dituzun arazo batzuk dituzu; horregatik, gogo falta duzu, motibaziorik gabe.

**Hazia**
(Urriak 17-Azaroak 15)

Zure lanean berrikuntzen bila bazabiltza, lasai egon zaitezke, askotarikoak izango dira eta; hoberako, noski!

**Negua**
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Lan elkarrizketa bat baldin baduzu egunotan, ondo neurtu itzazu zure berbak, eta kontuz zure jarreragaz.

hirukalagunen txokoa

Sari ederrak eskura!

Lehiaketa Non dago?


Argazkian ikusten den Uribe Kostako txokoa zein den igartzen baduzu, beheko hiru ikuskizunetako batez gozatzeko sarrera bikoitzak irabaz ditzakezu

Hiru emanaldietako batera joan gura baduzu, saioa hasi baino hiru egun lehenago bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: hiruka@hiruka.eus edo bete www.hiruka.eus webguneko Zozketak ataleko formularioa.



Sariak

Nekatutak saioa



Antton
Telleriaren lana,
urtarrilaren
28an,
Muxikebarri
Antzokian,
21:00etan.

Korrontziren kontzertua



Musika-talde
honen saioa
otsailaren 11n
izango da,
Kultur Leioan,
20:30ean.

Potx eta Lotx pailazoak



Pailazoen
ikuskizuna,
otsailaren 13an,
Kultur Leioan.
Saioa 18:00etan
izango da.

Zozketa

Begiratu leihotik liburua

Ibaizabal argitaletxeak 4 urtetik gorakoentzako liburu hau eskaini digu hirukalagunen artean zozkatzeko. Irabazi gura duzu? Liburuan, pila bat leiho daude, zein baino zein harrigarriagoak...

Zozketan parte hartu gura baduzu, otsailaren 4a (barikua) baino lehenago bidali zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: hiruka@hiruka.eus edo bete www.hiruka.eus webguneko Zozketak ataleko formularioa.



Zelan egin HIRUKAlagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna
Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus
Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.



EUSKARA, gure etorkizuna



aktuari & eneko zatiak



URTARRILAK 25

EUSKARAZ
Muxikebarri
(Gorrondatxe)
18:00

Izena eman behar da
Hautzaindegi zerbitzua
(eskatu egin behar da)

HITZALDIA

Zeuek duzue giltza. Haurren
hizkuntza portaerei eragiteko bideak



Hizlaria:

PAULA KASARES

Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea.
Euskal Filologian eta Gizarte eta Kultura
Antropologian lizentziatua. Soziolinguistikan aditua.

Nori zuzendua: gurasoei, irakasleei, hezitzaileei,
begiraleei...

eman euskara!

URTARRILAK 17tik 28ra
Ikastetxeetan

2 ETA 3 URTEKO UMEEN AURREMATRIKULAZIOA

Matrikulatu zure seme-alabak
eredu euskaldunetan

Antolatzaileak:



Getxo
hazteko



sendi
Gazteak, haurrak,
etorkizuna

hazibideak



Laguntzailea:

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Informazioa
eta izena
ematea:

